1919tik | 2.575 zenbakia | 2017/11/19 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

SALBUESPEN LEGEDIA ERASOAN

HERRIRA, ETXERAT, JAIKI HADI ETA ABOKATUEN TALDEKO **48 PERTSONARI 600 URTEKO ESPETXE ESKAERA** EUSKAL PRESO POLITIKOAK BABESTEAGATIK

» UXUE ALBERDI: "BERTSOTAN ERTZEKO BIDEA, AHULARENA, ANTIHEROIENA... ZAILAGOA DA"

» JUANA BALMASEDA: "USTEZ TRATU TXARRAK EMAN DITUENAK BIKTIMA SALATZEA GERO ETA GEHIAGO IKUSTEN DA"

» MASIFIKAZIO TURISTIKOA: BARTZELONA, NAZIOARTEAN ANTI-EREDU

02575
9 771578402 139093

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen egutegia, **sasoi** bakoitzari, **hilabete** bakoitzari eta **ilargialdi**ari lotuta: baratzean, fruitu arboletan, lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin ditugun jasotzeko aukera ematen du agenda honek.

LIBURUA ESKURATZEKO*

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda

12€

*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

@bizibaratzea

ARGIA

2.575 zenbakia | 2017/11/19

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Aktualitatea
7 Fauna publikoa
10 Net Hurbil: Kopenhageko errauste planta zor iturri

IRITZIAK

17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
18 Iñaki Murua
19 Gorka Moreno Márquez
Miren Artetxe
20 Katixa Dolhare-Zaldunbide

Gatazka politikoa ardatz duen ´Jenisjoplin' eleberria argitaratu berri du Uxue Alberdik. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

38 DENBORAREN MAKINA
40 BIZI BARATZEA
42 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA:
MARTIN ABRISKETA
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

12 | Inma Errea Cleix: "ETBko aurkezleak ezkontza batera joango balira bezala doaz jantzita" / Reyes Ilintxeta

22 | Herrira auzia: 600 urteko kartzela eskaera presoak babesteagatik / Xabier Letona

27 | Masifikazio turistikoa: Bartzelona, nazioartean anti-eredu / Axier Lopez

32 | Juana Balmaseda, abokatua: "Kontrasalaketekin, erasotzailea eta biktima maila berean jartzen dira" / Dabi Piedra

36 | Arabako gazte euskaltzaleak: Bigarren topaketak urte berean / Onintza Irureta Azkune

44 | Uxue Alberdi: "Gatazkarekiko lerratu ginen, eta gure kontraesanak eta ahultasunak irentsi genituen" / Mikel Asurmendi

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gaztelu ko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Kaleak betetzen, parekorik ez

Europan azken urteotan preso batzuen askatasunaren eta erbesteratuen etxeratzearen alde egindako manifestaziorik handienetako bat izan da azaroaren 11koa Bartzelonan. Diadetan trebatutako independentismoak hauspotuta, ehunka milaka lagunek bete dituzte kaleak. *La Directa*-ko kazetari Jesús Rodriguezek manifestazioaren hedapena eta dentsitatea kontuan hartuta egindako neurketaren arabera, 800.000 lagun bildu ziren. Konparaziorako, irizpide berberak erabiliz, indar espainiar-zaleek 170.000 lagun elkartu zituzten urriaren 29an.

Argazkia: Jordi Borrás · Testua: Axier Lopez

AITONA ESTA AMB VOSALTRES
LLIBERTAT JA!!
EUROPE, HELP US!
WE WANT:
REAL DEMOCRACY
FAIR JUSTICE
PROU HUMILIACIONS
EXIGIM RESPECTE
I DIGNITAT
LLIBERTAT
PRESOS POLITICS!
Llibertat!
Freedom!
www.komipe.es
LLOGUER

Greba egin dute EAEko haur eskola publikoak biltzen dituen Haurreskolak Partzuergoko langileek. %86ko jarraipena zenbatu dute sindikatuek, %66,5ekoa Jaurlaritzak.

"Oinarrizko arazo bat dago: Hezkuntza publikoaz ari gara, baina Haurreskola ordaindu egin behar da, eta oso garestia da. Matrikulaziorik ez badago ez dago kontrataziorik, eta kontrataziorik ez badago kalitate gutxiagoko zerbitzua ematen da. Doakotasuna da gakoa"

Ainize Lasa, irakaslea (*Goierriko Hitza*n)

"Haurreskolen erabiltzaile garen familia honek bat egiten dugu langileen lan-baldintzak hobetzeko aldarrikapenekin, Haurreskoletan zaintzen dituzten seme-alabei zerbitzu hobea emateko ere balioko dutenak"

@lluisraeco

OARSOALDEKO HITZA

Errenteriako hiru gazteak libre utzi dituzte epaiketaren zain

Axier Lopez
@axierL

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Carmen Lamela epaileak baldintzapean libre utzi ditu martxoan atxilotutako hiru gazte errenterriarrak. Espetxean izan dira orain arte, Iruñeko manifestazio baten ostean sortutako istiluen harira.

Errepresioari Autodefentsa dinamikak manifestazioa egin zuen 2017ko martxoan Iruñean, eta amaitu aurretik istiluak izan ziren Poliziarekin pare bat orduz Alde Zaharrean. Manifestazioak "azken hilabeteetan herri mugimenduaren kontra ezarritako errepresioa salatu eta autodefentsa mekanismoak sortzea" zuen helburu.

Istilu horien harira atxilotu zituzten Errenteriako hiru gazteak; laugarren pertsona bat ere auzi berean inputatuta dago baina adingabekoa denez, espetxea saihestu du. Epaiketa egin arte, auziaren ardura duen Carmen Lamela epaileak erabaki du gazteak aske egotea.

Espainiako Auzitegi Nazionalean, "terrorismoa" egotzita

Abokatu eta senideen eskaera nagusietako bat izan da auzia Espainiako Auzitegi Nazionaletik atera eta Nafarroako Auzitegian epaitzea. Zentzu horretan orain arte egindako helegiteek ez dute arrakastarik izan eta lau gazteak Espainiako Auzitegi Nazionalean epaituko dituzte "terrorismoa" egotzita.

"Ezin diegu arduradun frankistei kale-izenen ohorea eman"

LANDER GARCIA, FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO PLATAFORMAKO KIDEA

Gasteizko alkate Gorka Urtaranek ez dizkie dominak eta kale-izenak kenduko frankismoarekin lotutako pertsonei. Beren garaian kokatuko ditu. "Eskandalutzat" jo du frankismoaren krimenen aurkako plataformak. "Udalari Memoriaren Plan bat egitea proposatu genionean, helburua zen egia, justizia, errepa-razioa eta ez-errepikatzeko eskubideen alde egitea. Ezin diegu arduradun frankistei kale-izenen ohorea eman. Izen horiek aldatu behar ditugu, beste toki batzuetan egin duten bezala". **ARABAKO ALEA (2017-11-03)**

FAUNA PUBLIKOA

"Katalunia zuzenbide-estatu batean biziko da indar konstituzionalistek bermatzen badute. Gainontzekoa da ilegalitatea, sezesioa, matxinada eta anarkiaren aginpidea"

Jose Maria Aznar (Ser irrati katea)

Gutarrak ala kaosa

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Segun eta nondik begiratzen diozun, izan daiteke Kortaturen *La familia Iskariote* kantaren bertsio baterako materiala: aldatu *"¡Sabotaje! ¡Rebelión! ¡Desobediencia! ¡Agitación!"* eta jarri "Ilegalitatea! Sezesioa! Matxinada! Anarkia!"; grinarekin joz gero, seguru gaztetxeren bat saltaraziko duela.

Diferentzia da Aznarri entzunda ez duela parrandarako gogorik ematen, mantapean gordetzekoa baizik, pelikulatik gogoratuko duzun esaldi bakarra xuxurlatzeko Bruce Willisi: "Batzuetan indepeak ikusten ditut". Aitortu behar zaio gaitasun hori George Bushen bekadunari: edozein hitzi hostoak erortzen zaizkio bere ahoko negutik pasatzean. Aznarrek ez du ahoskatzen, Aznarrek berbak lehortzen ditu estepako polboroi bihurtzeraino –hitz egiteko maneran nabarituko zenioten–. Eta esaten duenaren formak salatzen du nongoak dituen jatorri ideologikoak, desordenaren etsai, bermeen zale askatasunen gainetik bada ere: eskuinerago pareta besterik ez daukan pentsamolde espainiar agoniko jakin baten larrialdietarako kit klasikoa. Atzo Jose Antonio Primo de Riverak jartzen zizkion hitzak, esanez sozialismoa zela "mendebaldeko zibilizazioa suntsituko duen ordena baten etorrera oldarkorra"; gaur Aznarren ahotan da independentismoa "anarkiaren aginpidea" ezarriko duena. Gutxi inporta gaiak, arrisku sentsazioa hauspotzea da kontua, mehatxua puztea, soluzio gogorra gurindu dezan.

Fartsa hutsa da dena. "Gutarrak ala kaosa" dio Aznarrek; eta herriak "kaosa!" erantzuten badio, prest dauka arrapostua: "Berdin da, hori ere gu gara". ■

ANALISIA

"Ez dugu konplize izan nahi". Greenpeace taldearen salaketa Bilboko Portuan.

Ongi etorri armak, *refugees go home!*

Axier Lopez
@axierL

Bilboko Portuaren plan estrategikoaren onurak hedabidez hedabide azaltzen aritu da Asier Atutxa presidentea. Baina, enpresariek beren enpresez hitz egitean ohikoa duten autobonboaz aparte, bi galdera 'deseroso' erantzun behar izan ditu. Bata, errefuxiatuak portura ez sartzeko eraikitzen ari diren harresiari buruz. Eta bigarrena, martxoan Ignacio Robles suhiltzaile desobedienteak piztu zuen eztabaidaren harira, Saudi Arabiara bidean Bilboko Portuan izan diren armaz betetako itsasontziez.

Txanpon beraren bi alde. Batetik, portua bunker bihurtuta, egoera biolentoetatik ihesi doazenak baztertzen ari dira; (enpresaren) segurtasunaren izenean. Eta bestetik, Saudi Arabiako diktadurak egoera biolentoak sortzen jarrai dezan ezinbesteko dituen armak esku zabalik hartzen ari dira; (enpresaren) negozioaren izenean.

Erantzunean Atutxak maisuki uztartu ditu multinazionalen bihozgabetasun historikoa eta politikarien pragmatismoa: "Begira, arma trafikoa legezkoa bada, guk lan logistikoa egingo dugu. Asier Atutxak honi buruz duen iritzia ez dut uste inori inporta zaionik".

Alemania nazian negozio itzelak egin zituzten enpresari askok aliatuen epaiketetan adierazitako arrazoibide bera erabili du: "Legediaren arabera moldatu naiz negozioa aurrera ateratzeko". Alegia, unean uneko legearen arabera egindakoa ezin dela inoiz delitu izan. Hori argudiatu zutenak zigortzeko mugarri izan ziren epaiketa horiek, hor sortu baitzen justizia trantzisionala –giza eskubideen urraketak konpontzeko neurri politiko eta judizialak–, egun Euskal Herrian egun sarri aipagai duguna.

Jakin nahiko nuke Euskal Herriko edo Espainiako zein legek dioen bidezkoa dela Yemenen aurka Saudi Arabiak abiatu duen gerra. Baina, hori ez da kontua. Israelek palestinarren aurka egin dituen zenbait sarraski legearen aurkakoak direla nazioarteko epaitegiek sarritan ebatzi badute ere, Bilboko Portuak ez dio utzi negozio egiteari sionismoarekin. Adibidez.

Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak salatu duenez, Atutxari legea eta justizia ez direla gauza bera "ahaztu" zaio. Eusko Jaurlaritzak arrazoi politikoengatik aukeratutako pertsona batek uko egin dio edozeinen begitara injustuak diren bi egoera hobetzen laguntzeari. Biolentziaren erabilera, gerra eta errefuxiatuen mundu mailako krisia ere "gureak" dira. Ez da onargarria "barkatu, ez da gure ardura" entzutea Atutxaren moduko botere postu batetik. Gizartearen aurrean irudikatzen baitu pertsonen sufrimendua baino gertukoen etekina dela kezka bakarra.

EKONOMIAREN TALAIAN

Portuak, bizitzarako ala heriotzarako?

Juan Mari Arregi

Bilboko Portuak bost urterako Plan Estrategikoa aurkeztu berri du. Getxoko kruzeroen kaian egin du, munduko itsasontzi onenetan milaka turista igarotzen diren tokian. Zein da plana? Irakurleek prentsa bidez jakin ahal izan dute. Baina portuko agintariek ez dituzte azaldu milaka lagunen bizitzari –eta heriotzari– eragiten dieten beste alderdi batzuk, nahiz eta portu hori funtsezko tresna izan. Horixe gogoratu zuen Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak, planaren aurkezpen ofizialean, elkarretaraturik.

Portu horretan, baina ez kruzeroen kai elegante eta modernoan baizik eta Zierbenan, atzerriko dozenaka migratzaile saiatu dira azken hilabeteetan ezkutatzen polizoi moduan. Batzuek lortu dute. Gehienak harrapatu eta atxilotu egin dituzte. Bilboko Portuak horma bat jaso du migratzaileak itsasontzietan sartzea eragozteko, batez ere Ingalaterrara doazenak. Baina portu horretatik jarraitzen dute esportatzen zati batean Euskal Herrian ere sorturiko armak. Joan den urtean lehergailuz beteriko hirurehun edukiontzi garraiatu zituzten. Eta arma horiek bidaltzen dituzte herritarrak zapaltzen dituzten eta Europarako migrazioa sorrarazten duten gerretan dabiltzan herrialdeetara. Euskal Herrira etorritako migratzaileek, polizoi moduan ihesean dabiltzanak, herrialde gataz-katsu horietakoak dira hain zuzen. Euroganberaren debekuari muzin eginez, euskal portu honetatik armak ateratzen segitzen dugu, Saudi Arabia bezalako herrialdeetara ere bai.

Bilboko Portuak kasu egin beharko lioke plataforma horri, eskatzen duenean "migratzaileen eskubideek eta askatasunek garrantzi gehiago izango duten etorkizun bat, konpainia handien interes ekonomikoek eta gerraren negozioak baino".

BARREN

8.000 eurorainoko isuna jarri diezaioke Aldundiak, protesta egiteagatik

MENDARO. Joseba Olazabal mendaroara A-8 autobide ondoan bizi da eta zaratarekin gogaituta, pantaila akustikoak jartzeko eskatu du behin eta berriz, modu bitxian: biolina jotzen aritzen da batzuetan, txirula besteetan, eta mezu askotariko kartelak jarri izan ditu. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jakinarazpena jaso du: autobideko erabiltzaileen "arreta galtzea eragin dezaketen jarduerak" egiteari lagatzeko eta kartelik ez jartzeko, bete ezean 2.000 eta 8.000 euro bitarteko zigorra jaso dezakeela.

Porno Eskola, heziketa sexualerako tresna

Hala Bedi
@halabedi

Porno Eskola jarri dute martxan Gasteizen. Helburua: heziketa sexualean sakontzea, horretarako pornografiari buruzko gida didaktiko bat baliatuz. SUmendi Gazte Espazioan egingo da tailerra, azaroaren 26an.

Nerabeak

"Konturatu ginen nerabeek sexuarekin duten lehenengo kontaktua pornoa dela: ikastetxean duten heziketa sexualak hutsuneak dituelako edo gurasoei galdetzea lotsa ematen dielako", dio Porno Eskolako kide Iratxe Gilek.

Kritikoa eta etikoa

Interneten dagoen informazioa kritikoki eta etikoki erabiltzea da asmoa, baita pornoaren unibertsoa berreraikitzea ere, teoriak berresanez, akatsak zuzenduz, erabiltzaileak berrezituz eta pornografia feminista, justu eta irekia sustatuz.

Baliabideak

Ilustrazioak abiapuntu, eduki mapa landu dute. Webgune bat ere jarriko dute martxan, unitate didaktiko ugari oinarri hartuta. Seme-alaben galderak erantzuteko "hezituak ez dauden" gurasoentzat ere lagungarri izango da.

MIGRAZIOA

26

emakume nigeriarren gorpuak agertu dira Mediterraneo itsasoan, Europara bidean. Ez dute baztertu homizidioa izatea.

14

eta 18 urte bitartekoak dira guztiak. Trafikatzaileek, batez beste, 6.000 dolar eskatzen dizkiete migratzaileei Italiara iristeko.

MERCADONA

Miribillako Urretxindorra Ikastolaren patioa zenaren lurren kalifikazioa aldatu zuen Bilboko Udalak, Mercadonak bere supermerkatua egiteko. Lurrak legez kontra birkalifikatu zituela ebatzi du EAEko Auzitegi Gorenak. Beraz, supermerkatu kate handiak ateak itxi beharko ditu Bilbon.

ARGITALETXEAK

Edo! argitaletxeak agur esatea erabaki du, bost urteko ibilbidearen ondoren. Aldi berean, Balea Zuria argitaletxea jaio da; poesia eta saiakera laburrak argitaratuko ditu eta poesia lehiaketa bat antolatuko du, 35 urtetik beherakoentzat.

BORTXAKETA

Azaroaren 24ra bitarte, bost gizon epaituko dituzte Nafarroako Justizia Epaitegian, iazko sanferminetan taldean emakume bat bortxatzeagatik. 22 urte eta 10 hilabeteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak akusatu bakoitzarentzat.

Kopenhagen Amager Bakke errauste planta, *elefante zuri* berria

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Aginte publikoek sustaturik altxatako eraikin oso handi, ospetsu eta garestia, aldi berean bere ustiapen edo mantenuan zama ekonomiko bihurtzen dena, horra zer den ingelesez *White elephant* eta frantsesez *Eléphant blanc* izendatzen dutena. Hondakinetatik negozio egiten duten korporazioek Kopenhageko Amager Bakke erraustegi berria saltzen dute munduko aurreratuena delakoan. Aldiz, martxan jarri aurretik bihurtuta dago herritarrentzako buruhauste galanta.



2016ko urrian Londrestik *The Guardianek* aurkeztu zion munduari Danimarkako mirari berria: "Ikuspegi bikainak dauzkan erraustegia: Kopenhageko hondakin plantak eski pista eta *picnic* eremua edukiko ditu". Ordenadorez egindako muntaian ikus daiteke aintzira eta zelaiz inguratutako paraje baten erdian sutegi futurista, kasualitatez tximiniarik ageri ez duena. Geroztik, Googleri Amager Bakker erraustegiaren irudiak eskatuz gero, aurkitzen dituen lehenak antzeko simulazioak dira, eraikin txundigarria elurpean, teilatu gainean eskiatzaileak, tximiniatik kea ez baina lurrunezko uztai artistikoak isurtzen...

Arrasateko LKSko ordezkariak Perun saiatu direnean Gipuzkoakoa bezalako erraustegi bat saltzen hango agintariei, oso posible da Amager Bakker berri-berria aipatu izana. Modan jarri dute. Izan ere, zerk eduki lezake berme hoberik herrialde nordikoetan maite omen duten labe batek baino? Danimarkan bertan, ordea, kezkatuta dauzka.

Abuztuan *Finans* egunkari ekonomikoak argitaratu zuen: "Kaosa milioiak kostatako erakin berrian: Amager Bakke hondakinak tonaka pilatzera beharturta". Ekainean labeak estreinakoz piztu bezain laster hondatu zitzaizkion. Hiru sutegietatik bat konpondu arren beste biek aste batzuetarako lanak zeuzkatela eta gobernuak baimena eman zion konpainiari hondakinak usinan metatzeko. Arazo konplikatua, milaka tona haien ia erdia sukaldeko organiko ustelkorrez osatuta zegoelako.

Udako matxura hau ez da izan lehenbiziko arazo teknikoa munduko erraustegi ekologikoena [*environmentally -friendly*] izateaz gain teilatuan eski pistak edukitzea harro aldarrikatu duen proiektu faraonikoarentzako. Joan den azaroan jakin zen bere hornitzaile nagusi B&W Vølund-ek akats tekniko larriak egin zituela, enpresari 100 milioi euroko galerak eraginez.

Murmur hedabide daniarrak 2016ko azaroan argitaratu zuen *Kopenhageko elefante zuri zikina*, hiriburuko agintarien proiektu izarraren buru hausteak kontatuz. "Esaten zuten mugarri bat ezarriko zuela konbinatuz arkitektura garaikidea, aisialdiko instalazioak eta hondakinentzako tratamendu aurreratua. Baina zientoka milioi kosta behar duen Amager Bakkeko errauste planta bihur daiteke zama bat zergak ordaintzen dituzten herritarrentzako eta mantsotu ditzake hondakinentzako beste estrategia ekologikoak".

Bere 85 metroko altuerarekin, Kopenhageko bigarren eraikin handiena da eta zaborrak erretzeko instalazioez gain osoki amaitutakoan eduki behar ditu eskiatzeko hiru pista, eskalatzeko harresia eta kafetegia. Hala ere, eraikina bukatu aurretik *Murmur*rek abisatzen zuen *elefante zuriak* eduki behar zuen arazo handiena: "Erraustegiak urtean 500.000 tona erretzeko ahalmena dauka, baina bere jabe diren bost udalerrien artean ez dute hainbeste zabor sortzen". Aldizkariaren kalkuluetan, horrek eragin lezake 2020 artean 255 milioi euroko defizita, azkenean herritarrek beren zergekin pagatu beharko lituzketenak.

Arriskuaz jabetuta, agintariek erraustegiari eman diote labeetara atzerritik zaborra ekartzeko baimena, urtean 115.000 tona arte, erreko duenaren bostetik bat. Erabaki honek urratzen du Danimarkan 2012an hondakinen planak eztabaidatzean ezarritako hondakinak inportatzeko debekua; baina gastu handienak egin ostean, zorra ordaindu beharrak hartu die gaina klimaren aldaketaren inguruko argudioei.

Ingalaterrako zaborren gose

Amager Bakke erraustegia da, 500 milioi euroko kostuarekin –bidean azaldutako arazo tekniko eta atzerapenen ondorioz–, Europan eraiki direnetan garestiena. Baina zenbait aditu daniarren iritzian, baliteke zaborren inportazioa ez gertatzea aski adabaki bere finantza ahulentzat. Munduko erraustegi *fashion*enak dauzkan arazoak direla eta, *Ingenioren* aldizkariak berrikitan titulatu du: "Kiebra jo dezake erraustegi batek? Bai, Svendborgekoak erakutsi digu nola".

Danimarka hegoaldean, Svendborg hiriak bere aldiriekin biltzen ditu ia 60.000 biztanle. Udalak 1999an estreinatutako errauste plantak oraindik arrastaka daramatza 12 milioi euroko zorrak. Herritarren zergekin egiten die aurre: inguruko udalek erretzera bidalitako tona bakoitzeko 54 euro pagatzen

Amager Bakke erraustegia tximinia nagusitik eta bizkarrean daraman beste txikiago batetik kea dariola. Bjarke Ingels Group –berena da argazkia– arkitektura eta eraikuntza konpainia multinazionalak diseinatua, zortzi hilabeteko atzerapenez estreinatu dute. Oraindik falta ditu gailurretik beheraino luzatuko omen diren eski pistak, kafeteria eta eskaladarako harresia. Interneten aurkitzen diren promozioko beste irudi askotan osagai guzti horiekin estetika futurista ematen du erraustegiak, tximiniatik lurruna uztai borobiletan isuriz.

duen bitartean, Svendborg beharturik dago tonako 143 ordaintzera.

Svendborgeko erraustegiak konkurrentzia latza dauka agintariek liberalizatu berri duten zaborren merkatuan. 50.000 tona erretzeko labea eraiki zuten, baina hiriak ez du 18.000 tona baizik sortzen urtean, labeak ase eta kontuak borobiltzeko zaborrak nonbaitetik ekarri behar.

Danimarkak bere osotasunean errauste ahalmen handiegia dauka. Atzerritik zabor pila itzelak inportatzen dituzte, 2015ean Britainia Handitik bakarrik 728.135 tona, daniar bakoitzeko 128 kg. Amager Bakkeren kasuan, 2012an planifikatzen ari zirenetako batzuek ohartarazi zuten zetorren egoeraz, proposatuz lehengo erraustegia zaharberritzea. Baina *Murmur*en kronikan azaldu zutenez, erraustegiaren sustatzaileek *lobby* lan bortitza egin zuten, hasieran uzkur agertzen ziren agintari lokal eta nazionalak planta berri iraultzaile eta *ikoniko* baten alde jarri arte.

"Europar Batasunak Ekonomia Zirkularraz hartu dituen erabakiak –idatzi du Christopher Nicastro Zero Waste Europeren azaroko buletinean– amesgaizto bat bezala dira Danimarkako erraustegientzako. Erretzeko gero eta gutxiago aurreikusita, Kopenhageko labe berri eta distiratsuek iraungitze askoz laburragoa eduki dezakete, galerak handitu eta herritarrei etorkizunean zama ekonomikoak eraginez".

Danimarka da gaur Europan errausketan txapeldun, etxeetan sortu zaborren erdia kiskali eta, ordainetan, birziklatze tasak oztopatuz. Organikoaren bereizketari dagokionez, Kopenhage da herrialdean okerrena dabiltzan 20 udaletako bat. Aurten hasiko da organikoaren bilketa bereziarekin. Horrekin eta oro har Danimarkak birziklatzea handitzeko hartu dituen erabakiekin, are bazka urriagoa geratuko zaio Amager Bakkeko labeari.

Irakurlea ohartuko zenez, ez dugu hitz bat aipatu Amager Bakke erraustegiak airera isuriko dituen toxikoez, ez hark sortuko dituen 100.000 tonatik gora eskoriez. Badirudi teknologia nordikoaren bermeaz fidatzen direla, nahiz eta eraikitzean ikusitako matxura eskandalagarriek ohar bat baino gehiago bidali Babcock & Wilcox konpainia sonatuaren fidagarritasunaz. Volkswagenek bere autoen isuriak urte luzeetan nola faltsutu zituen ikusi arren, oraindik ez dugu ikasi. VW kasuan legez, isuriak independentziaz neurtuko dituzten ikerlarien zain dago errauste industria. ■

Inma Errea Cleix idazlea

«ETBko aurkezleak ezkontza batera joanen balira bezala doaz jantzita»

Ideien mundua maite du Inma Erreak eta horregatik da kazetaria, itzultzailea eta idazlea. Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzuko bere bulego berritik euskara aktibatzea da orain esku artean duen lan nagusia.

Reyes Ilintxeta
@Reyesllintxeta
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nondik datorkizu Cleix abizena?

Arbaso bat Liejatik (Belgika) etorri omen, eta Alduden kokatu zen. Jatorrizko abizena, hala ere, Glaize zen. Gero, birrapitxiren aita, Eñaut, Pirinioez alde honetara artzain etorri, eta hark eraikitako borda batean bizi izan zen familia Zilbeti herrira etorri arte.

Euskara etxean ikasi zenuen?

Txikitan herrian bizi nintzen, Iruñera ikastera etorri arte. Amak euskara ulertu bai, baina galdu zuen. Osabek bai, Ameriketara joan ziren, eta han euskara gorde zuten. Aita Mezkiritzekoa genuen, hura ere euskalduna. Baina guri ez ziguten irakatsi. Unibertsitateko lehen mailan nengoela hasi nintzen euskara ikasten, eta orduan ohartu nintzen hizkuntzaren oihartzuna eta doinua banituela, apitxi-amitxiak elkarrekin euskaraz mintzatzen baitziren, eta guk gaztelaniaz erabiltzen genituen hitz eta esamolde anitz euskaratik zuzenean itzuliak zirelako. Horregatik esanen zidaten arraro hitz egiten nuela Iruñera 8 urterekin mojetara etorri nintzenean!

Noiz piztu zitzaizun euskaltzaletasuna?

Mojetan ikasi nuen batxilergoa, eta gero UBI zena institutuan egin nuen, eta han ezagutu nituen ikaskide batzuk, Iruñean zegoen giro euskaltzalean mugitzen zirenak. Orduan hasi nintzen horretaz pentsatzen, eta erabaki nuen euskara ikasi behar nuela. Unibertsitateko lehen urtean, izena eman nuen han bertan, Jose Basterretxea *Oskillaso* gernikarrak ematen zituen klaseetan. Hurrengo urtean, Arturo Kanpion euskaltegira joan nintzen, eta lau urtean ikasi nuen, kazetaritza egin bitartean. Ikasteko askoz dibertigarriagoa zen euskara kazetaritza baino. Euskara ikasteak nire buruaz ulertzen ez nituen gauza asko argitu zizkidan. Nire baitan nituen bi hizkuntzen presentziaz jabetu nintzen, eta haiek bereizten ikasi nuen.

Gaztetxo zinela tripetan sentitutako feminismoa ere aurkitu zenuen.

Egia. 15 urte inguru nituela gauza askorekin egin nuen topo. Orduan *hiritartu* nintzen. Hori baino lehen, hirian bizi nintzen astean zehar, baina asteburuetan herrira itzuli, eta han nintzen zoriontsu. Nerabezaroaren hasiera hartan, beste mundu bat ezagutzen hasi nintzen. Greba gogorrak zeuden, dena oso konplexua zen eta giro hartan euskararen ikuspegi politikoa ezagutu nuen, eta modu berean, feminismoa. Bidegabe jo-

Inma Errea Cleix

Iruñea, 1960

ETBn lan egin zuen kazetari hamaika urtez, eta 1997an Iruñeko Udaleko itzultzaile postua lortu zuen. Joan den martxotik, Iruñeko Udaleko Euskara zerbitzuburua da. *Literatura eta harrikoa* saiakera feminista argitaratu zuen Pamiela argitaletxearekin, 2003an. Itzultzaile gisa, lau saiakera (*Haserretu zaitezte!*, *Ekonomialari harrituen manifestua*, *Ez duzu deus ikusi Fukushiman* eta *Filosofia alabari azaldua*) eta hainbat ipuin euskaratu ditu.

tzen nuen gauza batzuk desberdin egin behar izatea neska nintzelako. Gauza asko ez nituen onartzen. Nire zaletasun asko ez zeuden oso ongi ikusiak neska batengan, denbora asko nire gelan irakurtzen ematea, adibidez, edo idaztea. Ematen zuen zerbait susmagarria egiten ari nintzela. Beste adibide bat: herrian oso normala zen neskak eta mutilak elkarrekin jolastea, baita futbolean ere. Ikastetxean, mojek debekatu egin ziguten futbolean aritzea *femeninoa* ez zelakoan. Orduan matxinatu eta errugbian hasi ginen. Hasi ginen *ostiaka* gure artean, eta mojak izutu, eta futbolean jarraitzeko baimena eman ziguten.

***Literatura eta harrikoa* saiakeran literaturaz eta feminismoaz idatzi zenuen.**

Saiakera gustatu izan zait betidanik. Harrikoa egiten, halako lan mekanikoetan, ideiak barra-barra etortzen zaizkit, eta horrela hasi nintzen liburu hori mamitzen. Barnean nituen gauza batzuk atera nahi nituen. Emakume jaio izateagatik bizi izan ditudan gauzen inguruko gogoeta da. Ez naiz feminismoaren intelektual bat, ezta gutxiago ere. Asko irakurritakoa bai, ordea, eta horrela egin nuen topo, esate baterako, Virginia Wolfekin. *Gela bat norberarena* lanean aurkitu nuen pentsatzen nituen gauza askoren isla.

Zein dira nabarmendu nahi izan zenituen ideiak?

Emakume zein gizon, guztiok dugula eskubidea barnean duguna garatzeko, bat etorri ala ez genero arau hegemonikoekin. Arau horiek, gainera, aldakorrak dira, garaian garaikoak.

Ideia nagusi batekin egin nuen topo: sortzea dela zure baitatik libreki egin behar duzun zerbait, besteei utzi gabe esaten zer zaren edo nor zaren. Ideia horietan aurkitu nituen nire matxinada partikularren arrazoiak. Emakume jaiotzeagatik zer ikasi behar duzun eta zer ez, edo zer literatura egin behar duzun, mugatzen duten ideiek sormena mendean hartzeko funtzionatzen dute.

Emakume literaturaz eta emakumeentzako literaturaz hitz egin daiteke?

Gauza desberdinak dira. Literatura guztiona da, eta guztiontzat. Ematen du generoarena dela, soilik, emakumeen kontua. Literaturan ez ditut bereizi nahi gizonak eta emakumeak, baina, aldi berean, emakume kontzientziatuek idatzitako literaturak erakartzen nau, eta behartuta sentitzen naiz hori bultzatzera, berdintasunaren alde egitearren. Bazterketa positiboa egitea beharrezkoa jotzen dut, baina berez kontraesan bat da.

Ikerketa batzuk daude ideia horren inguruan, eta esaten dute emakumeek gehiago erabiltzen ditugula zenbait metafora, adibidez uraren ingurukoak. Ez dakit. Agian gure bizipenekin lotuta dauden gauzak erabiltzen ditugu, baina, aldi berean, ikaragarria da ikustea zein natural hitz egiten duten gizonek bizi ez dituzten esperientziez, erditzeaz, esate baterako. Gainera, haiek estereotipoak sortu, eta guk, emakumeok, irentsi behar... Horregatik, emakumeok zailagoa izaten dugu askotan nahi dugunaz idaztea, nahi dugun eran: nire esperientziaren ikuspegitik zerbait kontatu nahi badut, eta horretarako dauden kontatzeko moldeak gizonek sortuak badira...

Bestalde, esan izan da emakumeok ez garela gauza pentsamendu abstraktua jorratzeko. Hori esaten badizute, behin eta berriz, eta emakume izanda ideien mundua gustuko baduzu, pentsa dezakezu emakume arraroa zarela. Niri saiakera gustatzen zait, eta poesia ere bai. Etiketak oso erraz jartzen dira, eta kalte handia egiten diote jendeari. Nik aitortzen dut horregatik sufritu dudala. Nerabezaroan guztiok sentitzen gara arraro. Nire kasuan, arrarotasun horri aurre egiteko nesken ohiko tresnak, dotore paratzea, makillatu eta diskoteketara joatea ligatzera, ez ziren baliokoak. Dantza egitea izugarri gustatzen zait, baina gaztetan, azienda feria batean nola, hala sentitzen nintzen dantzalekuetan, eta ez dakit gaur egun ere antzeko zerbait ez ote den gertatzen.

Kontu horretan gehiegi ez dugu aurreratu, ezta?

Susmoa dut ezetz. Eta nondik dator hori? Ez dugu ikusi nahi, baina hori gertatzen ari da gizarteak berak eta bertako egiturek pentsamolde horri eusten diotelako. Haserretzen naiz horrekin. Indarkeria matxistarekin asaldatzen gara, baina ezer gutxi egiten dugu eteteko. Gaur, lehen bezala, gizon bati ezetz esaten badio neska batek, azalpenak eman behar dizkio. Gizon askok ez dute ezetza onartzen. Ikaragarria da, eta ez da aldatu, goiko egiturek segitzen dutelako hori elikatzen. Patriarkatua, kapitalismoa... Nahi duzun bezala deitu, baina hor dirau, eta hori aldatzea ez zaie komeni boteretsuenei.

> » "Emakume jaiotzeagatik zer ikasi behar duzun eta zer ez, edo zer literatura klase egin behar duzun, mugatzen duten ideiek sormena mendean hartzeko funtzionatzen dute"

> » "Iruñean, euskara ez ikusteko ahalegin handiak egin dituzte batzuek, eta horregatik herri txikiago askotan baino okerrago gaude"

> » "Azienda ferian nola, hala sentitzen nintzen dantzalekuetan, eta ez dakit gaur egun ere antzeko zerbait ez ote den gertatzen"

Beste generoak egiten duena ez imitatzea feminismoaren gakoetako bat da?

Bai, baina zaila da. Virginie Despentesek, esate baterako, proposatzen du kontrakoa: emakumeak gizonen antzera egitea, bestela batere kasurik ez digutelako eginen. Adibidez, ez egitea uko gizonek defendatzeko erabiltzen dituzten moduei. Baina feminismo kontziente batetik arituta. Beste alde batetik, badira gizonen pare ibiltzen diren emakumeak, beste emakumeei kalte egiteko beldurrik ez dutenak, emakumeekin gizonak baino zorrotzagoak. Halakoek

mespretxatzen dituzte ustez beren mailara iristen ez diren emakumeak. Hori ez da Despentesek proposatzen duena. Batzuendako eskandalagarria da, baina oso interesgarria da idazle horrek kontatzen duena. *King Kong teoria* liburua izugarria da [euskarara ekarri du Itziar Diez de Ultzurrunek], eta guztiei, eta bereziki gizonei, gomendatzen diet. Probokazioa irudi lezake, baina ez da hori. Despentesek beraren historia kontatzen du: bortxaketa, prostituzioan izandako esperientziak…

Itzuliko zinateke kazetari lanera?

Euskal Telebistan egiten nuen kazetaritza motara ez nintzateke itzuliko. Esperientzia ona izan zen, baina une txarrak ere pasatu nituen. Orduan hasi zen kazetaritza aldatzen. Ikuskizunari gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion, eta hala da orain ere.

Kazetaritza ikastea hautatu nuen idaztea gustuko nuelako, baina badira gauza asko jasaten ez ditudanak, ikuspegi sexista, esate baterako. Aurkezleak ezkontza batera joanen balira bezala doaz jantzita. Negu gorrian, tirantedun soineko dotoreekin, izugarrizko takoiekin… Eta hori gizartearendako eredua da. Horrek ez ditu emakumeak ahaltsuago bihurtzen, ahulago baizik. Mezua da irudia oso inportantea dela, agian inportanteena. Telebista frantsesean ez da hain muturrekoa, jantziak soilagoak dira, esate baterako, eta Ingalaterran berdin. ETB jarraitzen ari zaio Estatuko beste telebisten ereduari, eta ez zait gustatzen. Azken boladan, TV3 ikusten dut. Telebista konbentzionalen artean, duinena iruditzen zait.

Itzultzaile bokazioz?

Gustatzen zait ahalik eta hobekien ematea hizkuntza batean beste hizkuntza batean sortua izan dena. Ideiak garraiatzea hizkuntza batetik beste batera. Oso gustukoa dut hizkuntzekin jolastea.

Giro eleaniztun batean sortu eta hazi izanak eragina izango zuen horretan, zalantzarik gabe. Herrian, euskararen eta gaztelaniaren presentziaz gain, frantsesaren eragina ere bazegoen, eta txikitatik izan dut izugarrizko jakin-mina gauza berriengatik. Gure etxera maiz etortzen ziren "amerikanoak", esamolde ingelesak ahoan. Gure aita Idahon ibilia

ELEKTRIKA
GRABAKETAK

-Grabaketak estudioan eta zuzenekoetan

-Nahasketa analogiko profesionala

-Zuzeneko teknikaria

Ander Barriuso Muñoa
https://elektrikagrabaketak.bandcamp.com/
https://www.facebook.com/elektrikagrabaketak/
elektrikagrabaketak@gmail.com
tlfnoa: 687046386

Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik aukeratzen ditugulako

✆ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.eus

zen artzain, eta amaren aldetiko osabak Kalifornian genituen.

Stéphane Hesselen *Haserretu zaitezte!* lanaren itzulpenak zer garrantzi izan du zuretzat?

Lan hori, eta urte berean, 2011n, plazaratu ziren beste biak ere, *Ekonomialari harrituen manifestua* eta E*z duzu deus ikusi Fukushiman*, Denonartean argitaletxe orduan hasi berriaren enkarguak izan ziren. Bizi-bizi aritu ginen, hainbat hizkuntzatan aldi berean kaleratu nahi zutelako Hesselen lana. Ekonomialariena eta Fukushimarena ere azkar-azkar joan ziren, errealitateak, krisiak eta istripu nuklearrak premiatuta. 2014an, laugarren bat egin genuen: *Filosofia alabari azaldua*. Lan lasaiagoa izan zen.

Zein dira Euskara Zerbitzu berrituaren erronka nagusiak?

Hasteko, esan behar da ez dela egia Iruñeko Udalean ez dela ezer egin urte hauetan. Baina normalizazioaren bidea asko murriztu zen UPNk agintean emandako denboran, eta euskara kulturaren esparruan landu zen gehienbat. Gauza asko izoztuta gelditu ziren 1999an. 1997an onetsi zen euskararen ordenantza. Gauza batzuk egin ziren arren, beste asko tiraderetan gorde zituzten.

Ordenantza bera hiru alditan murriztu zen, harik eta 2012an laugarren aldaketa egin arte, kasu horretan, bere ahalmena pitin bat zabaltzeko: euskarazko errotulu eta testuetan euskaraz erabilitako tipografia irakurgarriagoa egiteko proposamena onetsi zen.

Orain Udaleko gobernu-taldeak hasierako ordenantza haren espiritua nahi du berreskuratu, eta hori dela-eta gauza asko abiarazi behar dira. Hori lortze aldera berregituratu da Euskara Zerbitzua, itzultzaileak ere bertan kokatu eta euskara teknikari berri bat kontratatuta.

Hala ere, zaila da denera iristea denbora gutxian eta dauzkagun baliabideekin. Krisi ekonomikoa ez dakit gainditu ote dugun, baina haren ondorio anitz pairatzen ari gara oraindik.

Premiazkoena zer da?

Gauza asko: erabilera plana behar dugu barrura begira, eta euskara plana, hirira begira. Zehaztu behar dugu zer egin dezakegun, ditugun baliabideekin, herritarrei zerbitzua emateko.Gauza asko daude egiteke. Iruñerriko beste herri txikiago batzuetan jada egin diren urratsak eman behar ditugu guk orain. Iruñean euskara ez ikusteko ahalegin handiak egin dituzte batzuek, eta horregatik herri txikiago askotan baino okerrago gaude. Gainerako euskara zerbitzuekin hasi gara orain lankidetzan, sinergiak sortze aldera. Iruñean, Iruñerrian gaude, eta aldi berean gure hiria nafar hiriburua da, eta hori guztia ez dugu bistatik galdu behar. ■

Espainiako hiriburua Paris

Baleren Bakaikoa Azurmendi
EHU-KO IRAKASLEA

Behin baino gehiagotan entzun dugu Espainiaren eraketa Frantziakoaren antzekoa dela. Hortaz ez da harritzekoa borboitarrek, Espainiako Erresuma hainbat mendetan bere esku izan duten dinastiak, Frantzian izatea jatorria. Beraz, normala da Frantziako eredua Espainian kopiatu nahi izatea, baina baditu kopiatzea horrek bere berezitasunak.

Frantzian Iraultza egin zen duela bi mende eta erdi eta borboitarrak desagertu ziren edo urkamendira eraman zituzten. Espainian, aldiz, tarte labur batzuk kenduta, hor diraute agintean. Izan ere, familia osoa Erresumako aurrekontuen gain bizi da, bestelako diru iturri batzuk kontuan hartu gabe.

Madrilek Paris moduko hiriburu izan nahi du. Horregatik, Estatuko administrazio publikoa bertan kokatuta egoteaz gain, jarduera ekonomiko oro bertan zentralizatu nahi dituzte. Azken finean, Madril hiriburu ekonomiko, militar eta administratibo bilakatu dute. Eta alderdi politiko gehienen komunikazioa, politika, kultura ere bertatik irradiatzen dira Estatu osora. Hori guztia mantendu ahal izateko dirua behar da eta hori aurrekontu publikoen gain gauzatu ahal izan dute: horregatik inbertsio publiko gehienak Madrilen egiten dira, Katalunia eta beste herrialde batzuk saihestuta. Ondorioz, kataluniarrak abandonatuta sentitzen dira, estatu normal batek bere hiritar ororengana iritsi behar bailuke.

Kataluniaren independentziarako norabidea galgatu nahian, bertako enpresa erraldoiak erakartzen saiatzen ari da Madril, orain arte horrelako politika ankerrik gauzatzen saiatu ez balitz bezala. Euskaldunok ere zerbait badakigu, jakin ere, horrelako aferez. Esaterako, hor daukagu BBVAren kasua: interes politikoen ondorioz, jarduera guztia eraman zuen Bilbotik Madrilera, lanpostu zuzen eta zeharkako gehienekin.

Katalanak beldurtze aldera, Espainiako komunikabide gehienak azpimarratzen ari dira CaixaBankek, Banco Sabadellek, Aguas de Barcelonak, eta abarrek Kataluniatik egoitza soziala atera dutela, horrek utziko dituen ondorio kaltegarriekin, batik bat zergetan. Baina hainbestekoa izango al da ondorio negatibo hori?

Katalanak beldurtze aldera, Espainiako komunikabide gehienak azpimarratzen ari dira CaixaBankek, Banco Sabadellek, Aguas de Barcelonak, eta abarrek Kataluniatik egoitza soziala atera dutela, horrek utziko dituen ondorio kaltegarriekin, batik bat zergetan. Baina hainbestekoa izango al da ondorio negatibo hori?

Jadanik enpresa horiek beren jarduera ekonomiko handiena Kataluniatik at gauzatzen dute. Nahiz beren jatorrian kataluniarren aurrezkiak izan, gurean Euskaltelen kasuan lez; denboraren poderioz enpresa horien jarduera elite ekonomiko eta politiko espainiarren eskuetara joan da eta berau da gehien profitatzen den klasea. Bestalde, enpresa horien ohiko jarduerak eta kudeaketak Katalunian gauzatzen jarraituko ei dute, bertako merkatua oso garrantzitsua baita; bestela ikusi zer nolako beldurra sortu zen Banco Sabadelletik dirua ateratzen hasi zirenean kataluniarrak.

Bestalde, enpresa erraldoi horiek sortutako mozkinen gaineko zergak Estatuko ogasun zentralak bilduko ditu; beraz, orain arte bezala. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, tokiko zerga, egoera berdinean geratuko da eta Kataluniako herrietan gauzatutako jarduerek Estatuko ogasun zentralak transferituko die, tokiko eragiketa ekonomikoen arabera. Galduko lukeen diru sarrera publiko bakarra sozietateek kapitalaren eragiketen (Transmisio eta Ekintza Juridikoen gaineko Zerga: kapital soziala handitu, murriztu, e. a.) gaineko zerga izango litzateke, nahiz bolumen txikiko zerga den.

Hori dena, gaur egungo estatusak jarraitzen baldin badu, baina independentzia eskuratzen duen bezain pronto, Kataluniako ogasun publikoak izango lituzke eskumen horiek guztiak eta Madrilekiko menpekotasunetik askatuko litzateke, herrialde subirano gisa zerga eskumen oro bereak izango baitira, ez Espainiarenak. ■

Dena emon ala Doraemon?!

Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA BERTSOLARIA

Harritu egin nau Antena 3 telebistara Maddalen Arzallusek Irungo kanporaketan bota zuen bertsoa iristeak, baina badu lekua agurrean, artista senetik, umore jostarian eraikitako aleak telebista horretan, nik etxe horri buruz dudan iritzia izanda behintzat.

Zer pentsatu gehiago eman zidan euskal-erdarazko Telebistako albistegia irekitzeko bertso bera erabiltzeak. Bertsoak eta bertsolaritzak kate horri sortzen dion erakarmenaren berri ematen dit, noski bertsoari berari ezer kendu gabe, baina han ginenoi, emozioak erdiz erdi harrapatu zizkiguten beste hainbat bertso esanguratsu egonda.

Hitzekin, biziduna marraztu zuen Maialenek (Lunjabiok), pertsonaren egon nahi ez eta ezin egon muinenekoetatik eraikita. Maddalenek, berriz, egonezina ezin egon bilakatu zitzaion herri ordezkaria, lekualdaketari zegokion aire berriz jantzi eta marrazki bizidun bihurtu zuen; haurren, gaztetxoen eta errepiketan kantu-lagun izan zituen adinekoen, erreferente muinekoari arnasa emanez. Biek asmatu zuten asmatzen bi antenek ez bezala.

Antena bidez elikatzen diren gure ikasleekin berdina gertatu zitzaidan, nik argia pizteko gogoeta jarri nien aurrean baina beraiek argi erakutsi zidaten zein aukera zuten gogokoen: haurtzaroko egonezinak baretzeko jartzen zitzaien *Doraemon*, bat-bateko protagonista, bere herrian ezin egon eta ospa egindako independentista katalana.

> Harritu nau Antena 3ra Maddalen Arzallusek Irungo kanporaketan bota zuen bertsoa iristeak baina (...) zer pentsatu gehiago eman zidan euskal-erdarazko ETBko albistegia irekitzeko bertso bera erabiltzeak

Nire aukera eskaini nien eta haiek berena erreklamatu. Eta nire helburuak aintzat hartuta, kontua ez da zein den bi hautuetan interesanteena, hezteko aproposena, baizik eta euskara entzun, eztabaidatu, epaitu eta D ereduan (dena euskaraz) gure arteko komunikazioan ezinbesteko tresna bihurtzeko bertsoak zenbat balio dezakeen frogatu. Egundoko indarra du bertsoak eta argibide gutxirekin, itsuaurreko lan apur bat azpimarrak seinalatzeko eta lotura orokorrak ikusten laguntzeko gidaritza ttiki batez, euskara elikagai gustagarri bilakatzen du.

Eta badago zerbaiten premia hainbeste kalko zizelkatzen zaizkigun garaiotan: "Bihar ikusten gara, gero egoten gara; "nire sesioan sartu nahi baduzu" (ordenagailuan, zure saioan ala sestran?); "hori horrela izan da urte luzeetan" (eta urte motzetan? bisurteak –egun bat gehiago– ote dira luzeak?); "mendian zehar ibili ginen" (bai eta Aizkorrira igo zinetela diozu... oso zehar ez!); "kaletik dabil...". Edo *eman / emon* aditzaren eraldatze sinestezina: "Hirugarren munduan pobrezia ematen da" (eta hartu?); "bihotzekoak eman dio" (lehen jo egiten zuen eta, ia beti, eman ordez kendu); "muturrez eman da atearekin (eta ipurdiz erori atzeraka ordez!)". ■

Mateo efektua eta adina: pentsioen paradoxa

Gorka Moreno Márquez
EHU-KO IRAKASLEA

Bismarck izan zen XIX. mendean gaurko pentsio sistemaren eredua sortu zuena, belaunaldien arteko elkartasunean oinarriturik hain zuzen ere. Ekuazioa oso sinplea da, enplegua duten gazteen egoera ekonomikoa adinekoena baino hobeagoa denez, eurek egindako ekarpenen bidez ordainduko dira adinekoen pentsioak.

Adin piramidea edota bizi esperantzaren eraginak alde batera utzita –ez dira bigarren mailakoak–, gaur egun neke zantzu nabarmenak azpimarratu ditzakegu eredu honen baitan, are gehiago jubilazio-adina eta lan-adinean dauden belaunaldien arteko ezberdintasunak inoiz baino handiagoak direnean. Gaurko jubilatuak dira, oro har, babes-maila gehiago izan dutenak eta urte luzez kotizatzeko aukera izan dutenak –jubilazio ez kontributiboa eta alargun pentsioak, noski, beste gauza bat dira–. Guzti horren ondorioa da jubilazio horien zenbatekoa altua izatea adineko askorentzat. Piramidearen bestaldean populazio gaztea dugu, lanaren prekarizazioa pairatzen duena eta sarritan soldata baxuak jasotzen dituena. Azken urteetako krisiak egoera hori areagotu baino ez du egin, adinekoek babes-maila altuagoa izan dute eta krisia gehien pairatu dutenak lanean eta egoera prekarioan dauden langileak izan dira.

Testuinguru honetan *eredu bismarckianoak* ondorio erabat kontraesankorrak lortzen ditu: soldata baxuak eta kotizazio luzeak edukitzeko arazoak dituzten gazteak dira gaurko pentsionistei jubilazio altuak ordaintzen dizkiotenak. Erabat paradoxikoa den egoera alegia. Argi eta garbi gizarte politiketan hainbatetan erabiltzen den *Mateo efektuaren* aurrean gaude, apostolu hark Biblian aipaturiko esaldiari jarraituz: "Daukanari emango zaio eta ez daukanari duen apurra kenduko zaio".

Ez naiz ni izango pentsioen kopurua jaitsi egin behar denik esango duena, baina uste dut adibide horrek gogoetarako beta ireki beharko lukeela hainbat gizarte politikaren kasuan. Gaur egun adina ez dago beti zaurgarritasun ekonomikoari lotuta, batzuetan bai, baina hainbatetan ez.

Hortaz, garraio publikoetan egiten diren adinaren araberako deskontu orokorrak agian ez dira hain justuak. Badakit neure burua arriskuan jarri dezakedala ere, baina errealitate hau baliagarria zaigu beste hainbat programatarako… Imserso -ren bidaiak esaterako, ez baitauka logika handirik 1.700 euroko pentsioa jasotzen duen pertsonak batek merke baino merkeagoa bidaiatzea eta langile pobreak diren familiak hondartza zer den ez jakitea. Badakit eztabaida honek beste erpin batzuk ere badituela eta sinpleegia dela hemen botatakoa, baina eztabaida plazaratzea egokia delakoan nago. ■

Bortizkeria matriuskak

Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Zabaldu matriuska.

EFE agentziaren berria. Lerro-burua: "*Cantabria* espainiar ontziak itsasoan aurkitutako 26 gorpu lehorreratu ditu". Testua: "Ontziak Italiako Salerno hirian porturatu ditu 26 emakumeren gorpuak, itsasoan erreskatatutako beste 400 immigrante eta errefuxiaturekin batera".

Emakumeak izateak ez du, antza, lerro-bururik merezi (eta kurioski, testuan immigrante eta errefuxiatuak bereizteak bai). Salernoko prefetaren azalpenak jasotzen ditu berriak: hildako emakumeak, ziur aski nigeriarrak, zodiak batean zihoazen gizonekin batera, eta ontzia hondoratzean, emakumeek, zoritxarrez, ahulenak izaki, ondoriorik latzenak jasan behar izan dituzte.

Biolentzia biolentziaren baitan. Haien jatorrizko herrietan gure eraginez sorturiko gatazketatik ihesi doaz. Mugak itxi dizkiegulako doaz ihesi baldintzarik ziurgabeenetan. Eta ziurgabetasun horrek lasta bilakatzen dituen lehenak dira emakumeak.

Esan dutenez, gorpuak aztertuak izango dira, eta biolentzia zantzurik aurkitzen badute, autopsia egingo omen zaie. Autopsiak nekez esango du, ordea, ahulak zirelako hil ziren, ala uretan besteek baino denbora gehiago zeramaten *hil zirenean*. Dena den, ez dugu autopsien berri izango.

Itxi matriuska. ■

Atsedenen ondorioez

Katixa Dolhare-Zaldunbide
IDAZLEA

Azken hilabete eta aste hauetan, Aldudeko ibarrean zorigaitz franko gertatu zaigu: bat bertzearen ondotik zendu dira hainbat herritar, gazterik, batez ere minbiziarengatik. Ohi den bezala, jendeak eta predikariek azpimarratu dute presuna horien "kuraia gaitzaren kontra", "ihardukitzeko" eta azken uneraino "oldartzeko eta borrokatzeko indarra", eritasunaren "zuzengabeko garaipenari amore eman arte".

Erran-molde horiek gogorarazi didate Marc Billaud ikerlari kantzerologoak, Julie Henry filosofoak eta Pierre Sujobert hematologoak *Le Monde Diplomatique* astekarian idatzi *Trompeuses métaphores du cancer* (*Minbizi metafora engainatzaileak*) artikulua (750 zb., 2016ko buruila, 28. or.). Susan Sontagek *Illness as Metaphor* (1978) (*Eritasuna metafora gisa*) kritika liburuaren ildotik, erakusten dute gaur egundaino biziki arrunki aipatzen dela minbizia gerla, asozialtasuna eta erotasunaren metaforak erabiliz: soziopataren gisa, zelula gaiztoak ez ditu errespetatzen zelula sanoen komunitatearen arauak; bere burua baztertzen du psikopaten gisa; bortizki kolonizatzen ditu gorputzeko gune berriak; ondorioz, eri den presuna bera asozial, ero edo lanjerostzat dauka gizarteak, eta maiz "barkatzen ez duen eritasuna" eufemismoaren bidez soilik deitzen dugu minbizia. Bizkitartean, epaiketa moralen bidez aipatuz minbizia, ustekabean areagotzen diegu mina sufritzen duten presunei. Gehiago dena, gero eta gehiago uztartzen dira gerla eta minbizia solas publikoetan: gatazkan sartuak gara eritasunaren aurka; kanpaina abiatua da minbiziaren kontra, armak prestatzen ditugu haren kontra ihardukitzeko; hedabideetan, terrorista islamistak zelula gaiztoei konparatzen dira, eta haien kontrako eraso bortitzak (bazter sanoak berdin errausten dituztenak) beharrezko terapiari.



Antton Olariaga

Hots, eta etxeko auzoan berean frogatu dut, inplizituki galdegina zaio eriari soldadu kementsu eta heroikoa izatea, etsaiari gogor egiteko, eta ez otoi ahalkegarriki amore ematea, koldar edo traditzaileen gisa. Zinez, ikaragarriko presioa ezarria zaio, iduri eta gure beldur psikologiko, sozial eta politikoez nahi gabe kargatzen dugula. Jakinez, gainera, estresak balukeela zer ikusirik minbiziaren garapenarekin, metafora arruntez josi solasek egoera okertu baizik ez dezakete egin.

Testuinguru horretan, medikuntza eztia gero eta beharrezkoagoa agertzea ez da harrigarri: fitoterapia, naturopatia, Ekialdetik etorritako meditazio eta lasaitze saioak... Baina gure mintzatzeko moldea ere beharko genuke menturaz artatu, eta kasu eginez erabili delako metafora haiek, eriak baztertzen, kondenatzen, hobendun sentiarazten dituztenak.

Urrunago joateko, nago ez ote dugun nahigabe berdintsua eragiten Historiako garai batzuk "depresiboak" deituz, adibidez mundu mailan Mendebaldeko gizarte kontsumistaren aro garaikidea, edo Euskal Herrian euskararen erabilera nekatzen ari den gaurko garai hau.

Beste batzuen artean, XIX. mendean Alexis de Tocqueville filosofoak nabarmenki erabiltzen zuen eritasunaren metafora demokraziak eragin gaitzak aipatzeko, eritasun berezirik izendatu gabe, haatik.

Nik ez daukat sendagailu segurik proposatzeko, baina bai eriak hobeki laguntzeko, bai guhauren burua ez eritzat jotzeko, saia gaitezke eztitasunez mintzatzen, umorea eta jokoaren bidez, metafora baikorrak edo baketzaileak erabiliz. ■

ARGIAren alde

Lan berriaren aurkezpen emanaldia

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)
ABENDUAK 2, LARUNBATA

bi saio: **16:00** eta **18:30**

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera:

✆ 943 37 15 45

sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

ARGIA

Herrira auzia

600 urteko kartzela eskaera presoak babesteagatik

EPPK-ko presoak defendatzea arriskutsuagoa da XXI. mendeko Espainian frankismo gorrian baino. Edo haien aldeko lan politikoa egitea, haien eskubideez arduratzea edo beren senideak diruz babestea. Salbuespenezko "dena da ETA" doktrinak bizi-bizi dirau.

Xabier Letona
@xletona

2011ko urriaren 20an ETAk bere historiako erabaki garrantzitsuena jakinarazi zion euskal gizarteari: borroka armatua utziko zuen. Oraingoan gizarte osoak sinetsi zuen erakunde armatuak esandakoa, Madrilgo bulego mesfidatienetik eta euskal gizarteko azken sukalderaino. Sufrimenduaren amaierak bazuen hasiera datarik.

Euskal gizarteak harritzarra kendu zuen gainetik eta beste bat bizkarreratu zuen, Sisifok baino zorte handiagoa izango zuelakoan: bakea eraikitzen hasteko ordua zen. Egia, justizia, erreparazioa eta gisako kontzeptuen dantzari gogor ekin zioten hamaika bazterretan. Esperantza barreiatu zen han-hemenka, baita euskal preso politikoen mundu zabalean ere.

Ezaguna zen ez zela Irlandan moduan gertatuko, han armen isiltzea eta presoen kaleratzea negoziazioz lotua egon zen. Ezker abertzalea jakitun zen presoekiko edozein onura prozesu geldoa izango zela, bereziki kaleratzea. Baina ez hainbeste. Ez zen inongo urratsik egon preso gaixoen esparruan, ez hurbiltze prozesuetan, ezta bestelako espetxe onuretan ere. Eta oraindik ere ez dago. Aitzitik, espetxe politika malgutzera baino, presoen laguntza mundua inoiz ez bezala zigortzera jo zuen PPren Gobernuak: 2012, 2013 eta 2014 artean euskal presoei babesa emateko sortutako hainbat egituretako 48 pertsona atxilotu zituen eta auziperatu: denak ziren ETA.

> » Espetxe politika malgutzera baino, presoen laguntza mundua inoiz ez bezala zigortzera jo zuen PPren Gobernuak 2012, 2013 eta 2014 artean

ETAren "espetxe frontea"

Horrela sortu zen Herrira auzia edo Espainiako Auzitegi Nazionalean "espetxe frontearen auzia" deitzen dutena, legez 11/2013 auzia. 1960ko hamarkadan ETAren lehen presoak sortu zirenetik dira haien defentsaz arduratzen diren abokatuak; edo gizartean sostengu ekonomikoa edo politikoa eman dieten herritarren sektore zabalak, hainbat moldetan antolatuak. Hala zen 1978an, 1998an baita 2017an ere. ETAren "espetxe frontea" deitzen dio Auzitegi Nazionalak esparru horri eta, 48 pertsonari 8 eta 21 urteko espetxe zigorrak eskatzen dizkie fronte horretakoak izatea leporatuta.

Dena da ETA doktrinapean, Amnistiaren Aldeko Mugimendua eta Askatasuna erakundea legez kanpo utzi zituen Auzitegi Nazionalak iragan hamarkadaren hasieran eta dozenaka lagun espetxera bidali. Epaitegiaren aburuz, Herrira auzia mugimendu haien azken kapitulua da: haiek ETAk zuzentzen zituen eta

Herrira mugimendua 2012an sortu zen eta Auzitegi Nazionalak 2013ko irailean agindu zuen bere aurkako polizia operazioa; "Herrira auzian" guztira 48 pertsona daude auzipetuak.

hauek ere bai, eta hauen zuzendaritzetan direnek edo ordainpeko lanean ari diren denek badakite hala dela.

Dena da ETAren guardasol juridikorik gabe justifika ezina zen "espetxe fronte" horren aurka egitea, eta horren erakusle da Amnistiaren Aldeko Mugimendua 2001ean jarri zuela legez kanpo Espainiako justiziak, ez lehenago. Ezaguna da ETAren jarduera armatuaren garaian nola justifikatzen zen dena da ETA hori. Baina nola justifikatzen du instrukzioa egin duen Eloy Velasco epaileak hauen aurka jotzea ETAk borroka armatua utzi ondoren? Honek jarduera armatua uztea erabaki zuenean, "lehengo jarduera terrorista" "indar metaketaren" truke aldatu zuen; "azken kontzeptu honekin Ezker Abertzale osoaren estrategia berri bati egiten zaio erreferentzia, 'prozesu demokratikoa' deitzen dutena, zeinaren helburua den indar politiko eta sozial ahalik eta gehien biltzea Euskal Herria nazio gisa aitortu eta bere erabaki eskubidea lortzeko".

Bestela esateko, berdin da ETAk jarduera armatua alboratzea eta armak entregatzeko jarrera agertzea; eta berdin litzateke kalean panpinak saltzeari ekingo balio ere, kontua ez baita zer egiten den, noren zerbitzura dagoen baino. Fiskaltzaren ustez presoei laguntza ematen dieten hauek guztiek ETAren aginduetara dira, auzipetuek badakite hori eta, beraz, ETAko kide dira.

Auzipetuak bost taldetan banatzen ditu epaileak: Herrira mugimendua, abokatuak, EPPKren bitartekaritza taldea, Etxerat eta Jaiki Hadi (presoen osasun fisiko eta psikologikoaz arduratzen den elkartea). Leporatzen dizkien jarduera guztiak 2012an, 2013an eta 2014an egindakoak dira: dirua biltzen dute EPPK-ko presoentzat, presoen aldeko kanpainak egiten dituzte, omenaldiak antolatu aske gelditzen direnean, abokatuek defentsa lanak, psikologo eta medikuek zaintza lanak, bitartekaritza lana gizarteko beste eragile batzuekin... Hainbat talde arduratzen dira hauen koordinazioaz, batzuetan Koordinazio Gunea deituko da eta hurrengoan Koordinazio Taldea. Guztiaren gainetik "Halboka" dago –h-rekin idatzia agertzen da agiri judizialetan–, polizi iturrien arabera, "espetxe frontea" gidatzen duen ETAren egitura. Hamar euskal herritar daude auziperatuak "Halboka"-ko kide gisa.

ESPETXE ZIGOR ESKAERAK

Herrira

- Fran Balda: 21 urte.
- Amaia Esnal: 13 urte eta 6 hilabete.
- Eneko Ibarguren: 13 urte eta 6 hilabete.
- Ekain Zubizarreta: 13 urte eta 6 hilabete.
- Roberto Noval: 13 urte eta 6 hilabete.
- Ibon Meñika: 15 urte.
- Jose Antonio Fernandez: 15 urte.
- Oscar Sanchez: 13 urte eta 6 hilabete.
- Gorka Gonzalez: 14 urte et 3 hilabete.
- Jon Garai: 13 urte eta 6 hilabete.
- Sergio Labayen: 13 urte eta 6 hilabete.
- Manu Ugartemendia: 13 urte eta 6 hilabete.
- Eneko Villegas: 13 urte eta 6 hilabete.
- Nagore Garcia: 13 urte eta 6 hilabete.
- Jesus Mari Aldunberri: 13 urte eta 6 hilabete.
- Beñat Zarrabeitia: 13 urte eta 6 hilabete.
- Ane Zelaia: 13 urte eta 6 hilabete.
- Imanol Karrera: 13 urte eta 6 hilabete.
- Jon Mindegiaga: 15 urte.
- Javier Carvallido: 17 urte.
- Nagore San Martin: 17 urte.
- Emilie Martin: Zehaztu gabe.

EPPKren bitartekariak

- Arantza Zulueta: 14 urte.
- Jon Enparantza: 14 urte.
- Jose Luis Campo: 12 urte.
- Asier Aranguren: 12 urte.
- Aitziber Sagarminaga: 12 urte.
- Egoitz Lopez de la Calle: 12 urte.
- Aintzane Orkolaga: 12 urte.
- Mikel Almandoz: 12 urte.
- Naia Zuriarrain: 8 urte.

Abokatuak

- Alfonso Zenon: 11 urte.
- Kepa Mantzisidor: 11 urte.
- Eukene Jauregi: 11 urte.
- Ane Ituiño: 11 urte.
- Aiert Larrarte: 11 urte.
- Ainhoa Baglietto: 11 urte.
- Arantza Aparicio: 11 urte.
- Onintza Ostolaza: 11 urte.
- Haizea Ziluaga: 11 urte.
- Amaia Izko: 11 urte.
- Jaione Karrera: 11 urte.
- Atxarte Salvador: 11 urte.
- Iñaki Goioaga: 11 urte.

Jaiki Hadi

- Fernando Arburua: 11 urte.
- Oihana Barrios: 11 urte.

Etxerat

- Izaskun Abaigar: 11 urte.
- Nagore Lopez de Luzuriga: 11 urte.

Oharrak

- Denei eskatzen zaizkie 11 urte ETAko kide izatea leporatuta.
- 9 auzipeturi berrerortzea leporatzen zaie eta larrigarritzat hartzen da (11 + 1).
- 19 auzipeturi terrorismoa goratzea leporatzen zaie (2 urte eta 6 hilabete).
- 3 auzipeturi 3 urteko zigor eskaera talde terrorista finantzatzea leporatuta.
- Denei eskatzen zaizkie 12 urteko inhabilitazio berezia enplegu eta kargu publikorako, 10 urteko inhabilitazio osoa, eta 8 urteko zaintzapeko askatasuna.

"EPPKren kontrola"

Fiskaltzaren arabera, "AAMrekin edo Askatasunarekin zerikusirik ez dutela diote Herrirakoek, baina erakunde haiek egiten zutena egiten dute". Eta helburu berberarekin gainera: "EPPKren kontrol politikoa" (...) "EPPK-ko presoen kohesioa eta ETArekiko hauen fideltasuna giltzarri delako erakunde terroristaren estrategia berriaren garapenerako eta bere helburuen lorpenerako".

Bitxia da, beste une batean fiskaltzak dio ETArentzat klabea dela EPPK-ko presoek ez onartzea Espainiako espetxe legedirik, eta hori lortzea ere badela "espetxe frontea"ren zeregina. EPPK-k, ostera, 2011tik gaurdaino egindako debatean legalitate hori onartzen duela iragarri du. 2011n ekin zion barne eztabaidari eta 2013aren amaieran iragarri zuen gatazkan "egindako kaltea aitortzen zuela" eta Espainiako legediak eskainitako bakarkako bideak onartzeko eztabaidari ekingo ziola. 2017ko uztailean iragarri zuen ontzat ematen zuela EPPK-ko kideek lege onurak onartzea, beti ere bi marra gainditzera behartu ezean: damua eta salaketa.

2012an Herrira sortu zenean, publikoki adierazi zuen bere zeregin garrantzitsuena izango zela EPPK-ko presoek eta iheslariek egin beharko zuten pro-

DANI BLANCO

URIOLA.EUS

2018KO UDAZKEN ALDERA EGIN LITEKE EPAIKETA

Auziaren instrukzioa Eloy Velasco epaileak egin du. Epaimahaia osatzen dute, Alfonso Guevarak –lehendakaria–, Clara Bayarrik –ponentea– eta Gillermo Ruiz Polancok. Fiskalak ia 600 urteko espetxe zigorra eskatu du 48 auziperatuentzat. Guztiei leporatzen die talde armatuko kideak izatea, salbu eta bati, honi talde armatuarekiko kolaborazioa leporatzen dio. Leporatzen zaizkien gertaera guztiak 2012, 2013 eta 2014koak dira, ETAk borroka armatua utzi ondorengoak –2011ko urriak 20–.

Guevara magistratua oso polemikoa da Auzitegi Nazionalean, bere tonu zakarragatik edo beste kide batzuekin eta auto-gidariekin izandako istiluengatik, besteak beste; hala ere, badu zorrotz ospea ere eta esaten da ez duela men egiten beste botere batzuk saiatzen direnean bere esparruan sartzen.

Clara Bayarrik aurrerazale ospea du espainiar judikaturan eta, esaterako, herriko tabernen makrosumarioan boto partikularra eman zuen epaian, jarritako zigorrarekin desadostasuna agertuz. Bere ustez, funtsean, orduan zigortutako gehienak jarduera politikoa egiten ari ziren, leporatzen zitzaizkien delituak ez zeuden zigor kodean eta, gainera, ez zen nahiko froga aurkeztu auzipetuak ETArekin lotzeko.

Ahozko auziak ez du datarik oraindik eta luzerako joko duela dirudi. Itxuraz, ez da egingo 2018ko udazkenaren aurretik. Irailaren amaieran fiskaltzak bere zigor eskaera egin zuen eta orain akusazio partikularrak –AVT eta Dignidad y Justicia– beren eskaerak egin behar dituzte. Ondoren abokatuen defentsa idatziaren txanda da.

Goiko argazkian, 2014ko urtarrilean presoen aldeko manifestazioa; ez zen ohikoa izan, hura debekatua izan zen eta ondoren egin zena adierazpen askatasunaren aldeko mobilizazio bilakatu zen. Erdiko argazkian, Guardia Zibila Sareren manifestazio batean bildutako dirua eskuratzen. Behekoan, hainbat abokaturen prentsaurrekoa, presoen abokatuen aurkako sarekada salatzen.

Guikuri
landetxea
Guikuri
01138 Murua (Araba)
info@guikuri.com
www.guikuri.com
Telefonoak:
945 464 084
615 782 323 / 685 737 210

TALLERES
MITXELENA
S.COOP.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

zesuan laguntzea, presoak eta gizarte eragileen komunikazioa erraztuz, preso eta iheslarien eztabaida lagunduz eta, azken finean, gatazkaren amaiera ordenatuan presoak ere eragile aktibo izatea babestuz.

Epaile instruktoreak ez dio garrantzirik ematen borroka armatuaren ondorengo garaiari, haren ustez atzemandako agiri ugarietan argi ikusten da presoen inguruko elkarte eta erakunde hauek ETArekin duten harremana. Edozein modutan, guztiz argi ere ez dago antza, auziperatze autoaren lehen kapituluan instruktoreak zera aitortzen baitu Herrira elkarteari buruz: "Atzemandako dokumentazioan ez da aurkitu agiririk Herrira eta ETAren arteko harreman argirik zehazten dutenik". Orduan, nola dira Herrirako kideak ETAko kide?

» **ELOY VELASCO EPAILE INSTRUKTOREA:**
"Atzemandako dokumentazioan ez da aurkitu agiririk Herrira eta ETAren arteko harreman argirik zehazten duenik"

» **CONDE-PUMPIDO MAGISTRATUA:**
"Une honetan ezin dira kontuan hartu ikertzen ari diren ustezko delituen garaia baino askoz lehenagoko froga dokumentalak, horrela anakronismoan erortzeko arrisku larria dago eta"

Auziarekiko zalantzak epaileen artean ere

Egiazki, fiskaltzaren salaketan aipatzen diren froga guztiak 2012 aurrekoak dira eta, beraz, ez lieke eragin behar auziperatuei. Hori da behintzat Cándido Conde-Pumpido ponente duen apelazio helegiteak esaten duena, Iñaki Goioagaren auziperatzeari buruzko helegite bati erantzunez. Epaimahaiak atzera bota zuen Goioaga ez auziperatzeko helegitea, baina mahai gainean utzi zituen kontzeptu interesgarri ugari, esaterako frogei buruz: "Une honetan ezin dira kontuan hartu ikertzen ari diren ustezko delituen garaia baino askoz lehenagoko froga dokumentalak, horrela anakronismoan erortzeko arrisku larria dago eta".

Helegiteari erantzunez, esaten da, "ustezko delituak gertatu zireneko garaia zehazki baloratu behar dela, 2012, 2013 eta 2014koak direla, hau da, erakunde terroristak ekintza armatuak utzi ondorengoak". Areago, azpimarratzen da ezin direla kidetza edo kolaborazio kriminaltzat hartu ETAren "behin-betiko desagertzera bideratutako jarduerak", bereziki hauek "ekintza terroristak egitera bideratzen ez direnean".

Zalantzak asko dira, eta auzi hau aurrera atera zuen Zigor Salaren Bigarren Sekzioko Jose Ricardo de Pradak ere bereak aireratu zituen idatzitako boto partikularrean. Hainbat arrazoirengatik, ez zegoen ados auziperatzearekin. Esaterako, uste du poliziaren txostenek "sarri ondorio baloratiboak" dituztela, "gertaera objektiboak izatetik harago". Aurkitutako aztarnek eta horietatik egin diren interpretazioetatik ezin dela ondorioztatu "jarduera terroristarik izan denik. Aitzitik, agerian uzten dute ETAren bitarteko terroristetatik jarduera politikora dagoen bilakaera". Irtenbide politikora bideratutako jarduerak ezin direla auziperatu dio De Pradak eta "espetxe legedia ez onartzeak" ondorioak izan ditzakeela presoarengan "baina ezin da hori kriminalizatu".

Jurista, herritar eta beste askoren iritzia da: halako auzi bat bideraezina beharko litzateke zuzenbideko estatuan, baina ETAren aurkako borrokan eraikitako salbuespen munduan dena da posible: lehen erakunde armatuari aurre egiteko eta orain, mendekurako, euskal gizarteak beharko lukeen bake prozesua oztopatzeko edo Kataluniako independentismoa zigortzeko. ■

“Masifikazio turistikoak nazioartean anti-eredu bilakatu du Bartzelona”

Andrés Antebi eta Claudio Milano Bartzelonako antropologoak *Turismografías* proiektuaren sortzaileak dira, Venezia, Lisboa, Costa Brava eta Mallorcako beste lau kiderekin batera. Proiektu horren bitartez, turistifikazioaren inguruan sortutako herri mugimendu eta borrokak datuz eta tresnaz hornitu nahi dituzte, eremu akademikoko mugak gainditzuz. Gisa honetako proiektuak giltzarri izan dira Bartzelonan orain dela gutxi arte ukiezina zena ezbaian jartzeko: Denis Itxasoren hitzetan “urrezko arrautzen oiloa”, edo turismo eredua.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Axier Lopez
@axierL

Turismo globalak eragindako ondorioak eta herritarren erantzunak sintetizatzen saiatzen zarete.

Andrés Antebi: Ezagunak ez diren eta ikerketa beharrezko duten kontuak argitara eramateko egiten dugu lan. Maila transnazionaleko lanak ere sintetizatzen ditugu; sarri, turismoaren gaia, lokalegiak diren ikuspegietatik bakarrik jorratzeko joera dago. Adibidez, Espainiako Estatuko *boom*-a, nagusiki azken hiru urtetako neurriz gaineko saturazio turistikoa, estuki lotuta dago beste helmuga turistiko batzuen gainbeherarekin –batik bat Afrika iparraldekoekin–, udaberri arabiarrekin eta zenbait herrialde musulmanekiko zabaldu den segurtasun-ezaren ustearekin. Ezin da aztertu zer gertatzen zaizun egungo turismo globalaren dominoaren argazki osoa kontuan hartu gabe.

Hiri eta turismo ereduen inguruko eztabaida erdigunera ekartzea lortu duzue Bartzelonan.

A. Antebi: Hori orain dela zenbait urte pentsaezina zen, guztiz. Akademiaren, herri mugimenduen eta zenbait hedabideren artean osatutako idatzi gabeko aliantza oso lagungarria izan da galderak aldatzeko, mintzagai dugun *frame*-a eraldatzeko. Ez da kasualitatea azken inkestek diotena: bartzelonarren kezken artean turismoa lehen lekuan dago, langabeziaren gainetik. Hori oso esanguratsua da.

Eztabaida hori ez da Bartzelonan soilik piztu.

Claudio Milano: Amsterdamen edo Berlinen turismo masiboaren aurkako diskurtsoak badaude ere, ez dago Europa hegoaldean (Bartzelona, Lisboa, Venezia…) bezain antolatuta eta egituratuta dagoen politizaziorik.

A. Antebi: Lau edo bost urtetan, turismoaren industriaren ondorioei emandako erantzunen mapa sortu dugu, lehen existitzen ez zena. Oso urrun joan gabe, Donostia adibide paregabea da ulertzeko mugimendu hauek zergatik piztu diren hain azkar. Nahikoa izan da zenbait nodo eta ideia elkarlotzea, azalpen argia sortzeko erakargarritasun turistikoa bat-batean lortu duten hirien panoramari buruz; eta ulertzeko nola hori guztia lotuta dagoen espekulazio dinamikekin, gentrifikazioarekin, hiria eskaintzarik onena egiten duenari saltzearekin eta abar. Azken batean, turismo ereduaren bitartez oso erraz azal daiteke kapitalismo globalaren funtzionamendua.

Bartzelonako eredua esportatzeko modukoa izatetik marra gorria izatera pasa da

C. Milano: Ingeles hiztunen munduan asko erabiltzen dute *overtourism* kontzeptua. Eta hori islatzeko jartzen duten lehen adibidea Bartzelona da.

A. Antebi: Morar en Lisboa taldeko jendeak halaxe dio Portugalgo hiriburuko zenbait auzotako gentrifikazioaren aurka egin duten kanpainaren lehen paragrafoetan: “Ez dugu beste Bartzelona bat izan nahi”. Hau biziki garrantzitsua da. Lehen Bartzelona imitatu beharreko eredua zen eta egun, masifikazio turistikoak anti-eredu bilakatu du nazioartean.

"Bartzelonakoa eredu arrakastatsua da, publikoa eta pribatuaren arteko elkarlana oinarri, munduko hiri asko etorri zaigu bera kopiatzera". Turisme de Barcelona partzuergoko presidente Joan Gaspart-en hitzak dira, munduko 125 hiritan barreiatutako 170 hotel kudeatu zituen pertsonarenak.

A. Antebi: Bartzelona, gehienbat, izan da nazioarteko marketing eredu arrakastatsu bat. Kanpaina horiek antolatu dituzten pertsona berberek interes zuzenak izan dituzte negozioan. Eta industria global guztien antzera, askok etekin handiak lortu dituzte. Batez ere turismoaren inguruan sortutako azpiegitura handiak kontrolatzen dituen jendea da: garraioa, ostalaritza, sustapena eta beste gune estrategikoak. Ekonomia kapitalista orotan gailentzen den logikaren arabera eraiki dute: turismoarentzat lan egiten duten langile masa handien prekarizazio eta esplotazio progresiboa eraginez. Izan Bartzelonan ala izan Cancúneko hoteletan, guztietan berdin. Dirutza itzelak biltzen ari dira, baina aberastasunaren banaketa egunetik egunera are desorekatuagoa da.

C. Milano: Ez da zalantzarik zein diren hemen aberastu direnak: hoteletako lobbyak. Horregatik hitz egin da hainbestetan "Salto Atlantikoaz". Hotelen enpresa handi horiek, Sol Meliá eta Barceló kasu, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan boom turistikoa baliatzeaz gain, 2000ko hamarkadan "dena barne" ("*todo incluido*" erabili du gaztelaniaz) eredua esportatzeari ekin zioten. Karibeko eta Brasilgo ipar-ekialdeko hotelen boom handia, Kataluniako eta Balearretako kapitalaren ekinez eragin zen nagusiki.

Kasu horietan guztietan ezinbestekoa izan da erakunde publikoen parte-hartze eta lankidetza aktiboa.

A. Antebi: Turisme de Barcelona horixe bera da, industrialari, merkatari eta turismoaren sustatzaile nagusiak eta administrazio publikoa batzen dituen partzuergoa. Mahai baten bueltan beraiek nahi dutena egiten dute.

C. Milano: Hori oso argi ikusi zen, adibidez, Ryanair Gironara ekarri zutenean. Erabateko aldaketa eragin zuen Kataluniako turismoaren geopolitika eta osaketan. Diru publikoaren laguntzari esker gertatu zen. Berdina gertatu zen Bartzelonako aireportura Vueling lobby handiaren etorreran. Instituzio publikoen bultzadagatik izan zen, eta horrek goitik behera eraldatu zuen Bartzelonako aireko garraioa.

Instituzio publikoek parte hartu badute ere, turismoak oso sektore iluna izaten jarraitzen du.

A. Antebi: Orain artean elkarlan publiko-pribatu horrek eraiki eta idatzi izan du kontakizuna. Turismoaren inguruan dagoen informazio iturri ia bakarra delako Turisme de Barcelonak berak urtero argitaratzen duena. Opakotasun informatibo hori apurtu beharra dago; hedabideak, akademia eta herri mugimenduen artean presioa egin behar dugu. Bestela oso zaila izango da gertatzen ari denaren inguruko egiazko mapa osatzea.

C. Milano: Azken datuen arabera, Bartzelonan lizentzia duten 9.606 pisu turistiko daude. Airbnb-k abuztuan 17.000 etxebizitza turistiko eskaintzen zituen. Ia bikoitza da, eta ez dugu ostatu-gau horien inguruko daturik. Bartzelonara heltzen den jende kopurua Veneziakoaren parekoa da: 30 milioi lagun baino gehiago. Baina gaua hemen pasatzen dutenen datuen arabera, 9-11 milioi baino ez dira. Datu falta handia dago. Europako hiri askotan errepikatzen den arazoa da datuak ezkutatzea.

Eztabaida piztu eta segituan "turismofobia" azaldu zen.

A. Antebi: Lobbyek zuhurtziaz erabili duten tresna izan da, turistifikazioaren eta bere eragin negatiboen inguruko diskurtsoa zikintzeko. Oso kezkatuta daude ohiko eztabaida-markoa mugitu delako. Garai batean Espainiako monarkiarekin gertatu zenaren antzekoa da, artean ematen zuen ezin zela errege gaizki hitz egin. Turismofobia izan da uda honetan arrakasta handiena lortu duen saiakera horietako bat. Lortu dute hitz bitxi hori eztabaidaren erdian jartzea eta jendea nahastu dute, turismoaren masifikazioaren ondorio negatiboei egindako kritikak nolabaiteko xenofobia edo turistarekiko erdeinuarekin lotuz. Azken hilabetetan jarrera defentsiboa hartzera behartu gaituzte. Baina arrakastak ez du luze joko, oso erraza baita haien negozioaren arrakalak berriz eztabaidagai jartzea.

C. Milano: Gure diskurtsoaren kontrapuntu gisara, egungo turismo ereduaren defendatzaileak deszentralizazioaz,

Observatori de la Vida Quotidiana-ko kidea da Andrés Antebi (ezkerrean) eta Claudio Milanok Observatori d'Antropologia del Conflicte Urbà taldean hartzen du parte. Turismografías proiektuan elkartu dira.

» **Claudio Milano:** "Egungo turismo ereduaren defendatzaileak deszentralizazioaz, deskongestioaz eta desestazionalizazioaz mintzo dira orain. Horiek, argi eta zuzen esanda, gezur hutsak dira. Arazoa hiriko beste zonalde eta urtaro batzuetara hedatzeko baino ez du balio"

deskongestioaz eta desestazionalizazioaz mintzo dira orain. Horiek, argi eta zuzen esanda, gezur hutsak dira. Arazoa hiriko beste zonalde eta urtaro batzuetara hedatzeko baino ez du balio. Ez du ezer ere aldatzen.

Batzuk desazkunde turistikoaz mintzo dira. Posible al da?

C. Milano: Bai. Eragile batzuk oso neurri zentzuzkoak plazaratzen ari dira, gauzatzeko batere zailak ez direnak. Adibidez, hiria turistikoki sustatzeko diru publiko gehiago ez xahutzea, hiria bera bakarrik saltzen delako.

Turismo lizentziak kudeatzeko udal araudia ere hobetu daiteke. Gaur egun ez dira Ciutat Vella auzoan lizentzia gehiago ematen, baina bai Eixample, Gracia edo Sants-en. Hori metastasia da. Aldatu beharra dago.

Metro koadroaren prezioak berriz ere 4.000 euroko langa gainditu du, 2008tik ez zen horrelakorik gertatzen. Hau da, berriro burbuila batean sartuta gaude. Eta zer gertatzen da Bartzelonako portuarekin? Gurutzaontzi bat heltzen den aldiro, hirira 20.000 auto gehiago sartzen dira. Eta portuaren kontseiluetan ez dago herritarren inolako partaidetzarik.

Hau da, negozioa jarri behar da jo puntuan?

A. Antebi: Bai. Etekinak birbanatzeko eta turismotik aberastu diren enpresa handiek orain arte gozatu duten barra libreari mugak jartzeko neurriak behar ditugu. Bide horretan egindako ekarpenak irrigarri uzten saiatzen dira, esanez: "Zer egingo duzue, autobusei ordain-sariak jarri, aireportuko etorrerak mugatu, Ciutat Bella hesitu?". Bada, ez. Jendea helburu duten neurri hertsatzaileez ez gara ari.

"Desazkundearen bidetik" –komatxo askorekin– hemen onartutako lehen neurria turismo-tasa izan zen: hotelean pasatutako gau bakoitzeko euro bat ordaintzea. Turisme de Barcelona partzuergoa haserre bizian jarri zen, eta lortu zuten tasarekin irabazitako diru guztia Bartzelonako sustapen turistikoan inbertitzea. Hau da, haientzat dirua biltzeko beste bide bat irekitzea lortu zuten eta, aldi berean, jasangarritasunaren alde zerbait egiten ari zirela irudikatzea.

Estrategia horiek dira borrokatu beharrekoak. Datozen urteetan lobby horiek aho betean arituko dira turismo jasangarriaz berbetan, enpresa handiek ekonomia berdearekin egin duten bezalaxe.

C. Milano: Airbnb, Uber eta antzekoak, hastapenetan, turismoaren etekinak birbanatzeko aukeratzat hartu ziren, eta azkenerako, ezkutuko ekonomia direla agerian utzi dute. Beste zerbait bilakatu dira, "plataformaren kapitalismoa" deitu genezake.

Nola ikusi duzue Ada Colauren Udal Gobernuaren zeregina gai honetan?

A. Antebi: Garaipenen bat lortu dute eta hori aitortu behar zaie. Jarrera irmoa erakutsi dute Airbnb-ren gehiegikerien aurka. Baina beren politikaren beste arlo askotan gertatu bezala, keinuetan oinarritutako politikatik harago ez dira joan. Oso nekeza zaie egiatan lotesleak diren erabakiak hartzea. Eredu oso bat eraldatzeak denbora behar du eta Udal Gobernuari presio sozial handiagoa egitea, eta, paradoxikoki, agintean daudenak presio sozialaren lubakitik datoz.

Kataluniako prozesu independentistak ekarpen positiborik eragin al diezaioke turismo ereduaren inguruko eztabaidari?

A. Antebi: Nik, printzipioz, ez dut uste erraz elkarlotzeko moduko kontuak direnik. Baina fokua zabaltzen badugu eta Katalunian bizitzen ari garena 78ko erregimena inpugnatzeko saiakera gisa hartuz gero, eta "tardofrankismoa" turismoaren ideologiaren bueltan eraiki zenez, orduan bai, kontakizunaren barrunbetan zenbait aldaketa gerta liteke. Halere, horrelakorik ikusteke dago. Oraindik partida jokatzeko dago. Prozesu honen gidaritzan Kataluniako eskuin "convergentea" dago. Eta, hain zuzen, haiek izan dira egun ezbaian jartzen ari garen turismo ereduaren sustatzaile eta babesle nagusiak. ■

ANALISIA

Abenduaren 21ean izango al da Kataluniako erreferendum legala?

Kataluniako Gobernu legitimoaren erdia kartzelan daukate; beste lau kontseilari eta presidentea atzerrian. Tentsio izugarriko asteen ostean, badirudi indarrak abenduaren 21eko hauteskundeetara bideratuko dituztela denek. Asko dago jokoan. Espainiako Estatuak kolpe bat ematen duen bakoitzean "oraingoan bai, kontu hau amaitu da" pentsaera zabaltzen badu ere, gatazka bizi-bizi dago. Luze joko duen gatazka gordinean dago murgilduta Katalunia. Euskal Herrian ongi dakigu zer esan nahi duen horrek: orain arteko 'Irribarren iraultza' hortzak estutzearekin uztartzeko ordua iritsi dela.

Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz

Mundu osoko kameren aurrean zela, Puigdemontek Bruselan emandako lehen prentsaurrekoan, nahiko oharkabean pasa den zerbait esan zuen: Estatuaren errepresioaz Gobernu kataluniarrak zituen datuen arabera hobetsi zuten atzerrira joatea. Zer datu zituen bada presidenteak esku artean?

"Puigdemont Bruselan errefuxiatu ostean, hainbat kazetari barrez erantzuten eta Estatuaren biolentzia erlatibizatzen ari dira. Zergatik ez duzue egia azaltzen? Zergatik ez diezue zuen irakurleei azaltzen Mariano Rajoyk asmoa zuela 116. artikulua dekretatu, armada atera eta herritarrei eraso egiteko?". *La Directa*ko Jesús Rodriguez kazetari zailduak jakinarazi zuen Espainiako medioentzat lan egiten duen dozena bat berriemailek "xehetasun askorekin" kontatzen zuela salbuespen legeria aplikatzeko asmoa.

Norabide berean doa Jordi Graupera idazle eta analista politikoa *El Nacional*en: "Hildakoak egotea ea jasan zezaketen aztertu zuten presidenteak eta Gobernuak. Generalitateak trantsiziorako legea aplikatu eta errepublika efektibo eginez gero, orden publikoko indarren aginte erreala izan bitartean, berehalako bide bakarra, Lituanian bezala, jendeak erakundeak defendatzea zen. Zalantza bakarra zuten: ea Estatuak nola egingo zuen tiro, metalezko ala gomazko balekin, edota neonaziei modu askean ibiltzen utziko zieten". Horren aurrean, Belgikako jokaldia hautatu zuten: errepresio hori ekidin, Lamelaren jokaldia zaildu eta gatazka naziaortera eramatea.

Alde ahula, herritarrek emandako agindua aurrera eramateko hautatutako ordezkari publikoen espetxeratzea eta Kataluniako erakundeen kontrola pixkana galtzen hastea. Egunotan, Madrildik Generalitatea "kudeatzera" heldutako lehen teknokratek demostratu dute gaztelania ez dela inoiz inon inposatu, bere garaian Espainiako Erregeak Gernikan esan bezala. Hartu duten lehen neurria, Generalitateko barne dokumentuak Cervantesen hizkuntzan idatziko direla izan da.

Askok errepikatzen dute ez zutela sekula pentsatuko klase politiko kataluniarra egoera honetara heltzeko prest egongo zenik –horren erakusgarri Urkulluren negoziaziorako borondatea?–, baina hala ere, azken asteetako bulegoko politikek kritikak jaso dituzte kalean mobilizatzen aritu den independentismoaren aldetik. Sektore ugarik aldarrikapenaren ostean, pauso erreal batzuk eskatzen zituzten errepublika eraikitzen hasteko: sinbolikoak (izan Espainiako banderak kentzea), legegileak (Parlamentua deitu eta aurrez prest zeuzkaten dekretuak onartzea Espainiako 155. artikulua legez kanpoko izendatuz, edo Independentzia Aldarrikapena buletin ofizialean argitaratzea) eta exekutiboak (denak beren bulegoetara itzultzea). Orain, ordea, Mossoen kontrola pixkana galduz, geroz eta zailagoa dute halako pausorik ematea, datozen hauteskundeak arte, behintzat.

Hauteskundeak bai, baina zertarako?

Rajoyk Katalunian 155. artikuluarekin emandako estatu kolpearen ostean hautekundeak hain azkar deitzea mugimendu zorrotza izan da. Zorrotza, baina arriskuz betea. Errepublika bat eraiki nahi duen independentismoak hauteskunde hauei boikota egin eta lau urtetarako Generalitatea kontrolatu eta desmuntatzea aukera bat zen. Ez da halakorik gertatuko ordea, alderdi independentistek, bihotzeko minez gehienek, botoen erronkari eustea erabaki baitute. Helburua: boomerangak Estatua aurpegian kolpatzea, hautetsontzietatik independentismoa indartuta ateratzea bilatuz. Hainbeste entzun behar izan duten "erreferenduma legez kanpokoa da" argudioa gainditu eta hirugarren –eta azken?– erreferenduma egiteko aukera jarri die mahai gainean estatuak. "Hauteskunde autonomiko" hauek Katalunian plebiszitario gisa planteatzen dituztenean, zer egingo du Estatuak irabazteko?

Egoera zaila izanik ere, lorgarria da independentismoak oinarria zabaltzen jarraitzea. David eta Goliathen arteko borrokaren aurrean herritarrek egingo duten hautuak batetik, Podem-en inguruko zatiketak bestetik, eta salbuespen

egoerak bultzako duen parte hartzearen igoerak azkenik, emaitzetan zein eragin duen ikusteko dago. Egia esan, independentismoari ongi etorriko litzaioke urriaren 1eko erreferendumean baiezkoa bozkatu zutenak baino gehiago zenbatu ahal izatea. Baita ezezkoak zenbat diren kontatzea ere. "Legez kanpoko erreferendum batek legal izaten amai dezake", dio kezkati PPko Mayor Orejak. Puigdemontek Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari behin eta berriro botatzen dien galderak ulertzera ematen du zein aurreikuspen egiten ari diren alderdi errepublikarrak: "Guk errespetatuko ditugu emaitzak, eta zuek?".

"Hauteskundeen ostean gobernu independentista bat aterako balitz, berriz ere 155. artikulua aplikatuko genuke", bota zuen Senatuko presidenteordeak. Mehatxuka bada ere, zazpi urteko utzikeriaren ostean, edozeri "ezin da" erantzunez ibili eta gero, Espainiako Estatua azkenean sartu da bataila politikora. Beldurraren karta indartsua da eta PPk ongi daki hori erabiltzen. Estatuan bere hauteslego eskuindarra pozik edukitzeaz gain, aurkaria kolpatuz oinarriak desanimatu eta desmobilizatzea bilatzen ari da. Estrategia mingarria, edozein mugimendu politikotan aritu denak ongi dakienez. Horrez gain, opari gisa, beren ildo politikotik ateratzen den edonor mehatxatzeko tresna bilakatu dute PPko kideek Konstituzioaren ditxosozko artikulua. Izan Kataluniako, EAEko, Nafarroako edo Gaztela Mantxako gobernua. 155a izango al da 78ko Erregimenaren jostailu berria?

Biolentziaren karta edukiko du Espainiak eskuetan eta atxiloketak egiten jarraituko duela susma daiteke. Estatu honek ez du konplexurik interes politikoengatik komeni zaion edonor barrura sartzeko, galdetu bestela "dena da ETA" teoriaren biktimei.

Horrenbestez, erronka galanta eta galdera ugariren aurrean dago independentismoa: hauteskundeak bai, ados, baina zertarako? Hauteskundeak bide bat izan daitezke indartzeko, baina hauteskundeak al dira orain arte egin ezin izan den zerbait egiteko tresna? Nola hasi Kataluniako Errepublika eraikitzen? Lurraldearen kontrola eta beste hainbat gauza negoziatzea bilatzeko, nola bilakatu egoera jasanezin Espainiako Estatuarentzat? Kaleak izango du zeresanik. ■

11itzulpen

EUSKARATIK INGELESERA
ZUZEN
INGELESETIK EUSKARARA
ZUZEN

EUSKARA | CASTELLANO | FRANÇAIS | ENGLISH

Euskal Herrian gehien erabiltzen diren hizkuntzen arteko itzulpenak eta zuzenketak egiten ditu 11itzulpenek. Eskarmentu eta prestakuntza handiko gure itzultzaile eta zuzentzaile taldeak eta gure lan-metodologiak itzulpenen kalitaterik gorena bermatzen dute.

» **Testu kalitatea bermatzen dugu**
» **Lana eskatutako epemugan eta formatuan entregatzen dugu**
» **Terminologia zehatza eta koherentea ziurtatzen dizugu**

www.11itzulpen.eus
info@11itzulpen.eus
Skype: 11itzulpen
✆ (34) 699 433 121

Juana Balmaseda Ripero abokatua

“KONTRASALAKETEKIN, ERASOTZAILEA ETA BIKTIMA MAILA BEREAN JARTZEN DIRA”

Indarkeria matxistagatik salatutako gizonezkoek biktimaren aurkako kontrasalaketa jartzea gero eta ohikoagoa dela nabaritu dute genero indarkeriaren aurka lanean ari direnek. Juana Balmaseda Ripero abokatuaren esanetan, emakumearen salaketari sinesgarritasuna kentzeko estrategia da. Elkar salatu badute, maiz etxe barruko liskartzat jotzen da gertatutakoa, indarkeria matxistatzat hartu ordez. Genero indarkeriari eta sexu erasoei aurre egiteko Emakundek koordinatutako lantaldean, abokatuen arloaren ordezkaria da Balmaseda.

Dabi Piedra
ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

Erasotzaileek biktimaren kontrako salaketa jartzea, estrategia judizial gisa, gero eta ohikoagoa da?

Zuzenbidearen munduan ibilbide luzea egin dut eta argi eta garbi esan dezaket, azken urteetan ikusi dudanaren arabera, erasotzaileek asko ikasi dutela. Beren aurkako salaketei aurre egiteko garatu dituzten estrategien artean, ohikoa da salatuak ere salaketa bat jartzea, hau da, ustez tratu txarrak eman dituenak biktima salatzea gero eta gehiago ikusten ari gara.

Zer arrazoi daude estrategia horren atzean?

Batetik, jakina, prozesu judizialera begirako estrategia da. Bestetik, biktimari indarra kentzeko asmoa ere badago, edo haren sinesgarritasuna zalantzan jartzea, duda sortzea. Honek eragin ditzakeen perbertsioak oso handiak izan daitezke, prozesu guztia desitxuratzeraino.

Badirudi estrategia horrek emaitza ona ematen diela batzuetan.

Salaketa jaso duten gizon askok biktimatzat dute beren burua. Emakumeari mesede egiten dion sistema batek kalte egin diela uste dute, eta justizia arloko hainbat eragilek mezu horiek aintzat hartzen dituzte. Sistemak bere oinarri patriarkala agerian uzten du, interes hutsagatik ipinitako salaketa batetik abiatu eta gizonaren alde jartzen denean. Garbi dago honek mesede egiten diela estrategia horri ekiten diotenei, bestela ez lukete egiten segituko.

Egokiak dira gaur egungo legeak?

Hemen badugu arazo nabarmen bat, ze biktimei babesa emateko legea badago,

» "Tratu txarrak jasan eta, hala ere, indarkeriagatik emakumeak berak kondena bete behar izan duen kasu bat baino gehiago ezagutzen dut"

Lege Integrala esaten zaiona, kritikagarria izanda ere neurri eraginkor asko eskaintzen dituena. Baina legea izatea ez da nahikoa, emakumeen aurkako indarkeria ulertzeko eta haren aurrean nola jokatu jakiteko zinezko kultura kritikoa ere behar da, legea aplikatu eta interpretatzeko formakuntza. Genero ikuspegia eta ikuspuntu feminista kontuan hartu behar dira. Gizartean zabaldu da feminismoa jarrera ideologiko erradikala dela, gizonen aurkakoa. Ezta pentsatu ere, hain zuzen ere, feminismoa halakotzat hartzea ikuspegi matxistatzat joko nuke. Feminismoa behar dugu ikuspegi kritikoa izateko legea irakurtzeko orduan. Legea interpretatzen ere jakin behar baita, itxuraz neutroa da legea, baina ezer neutrorik ez da, are gutxiago auzi honetan. Epaileek, fiskalek, abokatuek eta abarrek formakuntza teknikoa izatea ez da nahikoa, genero gaiak ulertzeko formakuntza ere behar dugu.

Formakuntzarik ezean, gizartean hedatutako aurreiritzien menpe dago justiziaren arloa?

Prozesuan parte hartzen duten guztiek

gogoan izan behar dituzte hainbat aldagai, esate baterako, maiz erasotzailea eta biktima ez direla posizio berean egoten. Justizia administrazioan txipa aldatzeko nolabaiteko erresistentzia sumatzen dut batzuetan, alor guztietan daude aurreiritziak. Autokritikarik egin ezean, gizartera zabaltzen dira funtsik gabeko zurrumurruak, adibidez emakumeek salaketa faltsu asko jartzen dituztela. Kontrara da, oraindik indarkeria mota asko guztiz isilduta daude. Emakumeentzat ahalegin handia da salaketa jartzea, ez doaz arinkeriaz epaitegira nik ez dakit zer onura eskuratzeko. Zoritxarrez, epai batzuk irakurrita nabarmena da aurreiritzi batzuk oraindik badaudela. Horregatik, erasotzaileak biktima salatzen badu, lagundu egiten du aurreiritzi horiek indartzen.

Erasoa jasan duten emakumeak salaketarik ez jartzera bultza ditzake horrek?

Pentsa emakume batek ikusten duela bera ere zigor dezaketela, etxe barruko indarkeriagatik. Beharbada bai, egin du erasoa, baina atzean dagoena ikusi behar da, defendatzeko egin duen adibidez. Halako kasuetan sistema judizialean zuen konfiantza galdu egiten du. Pentsa zer den erasoa salatu eta, azkenean, norberak kondena jasotzea eta beste partea epaiketatik onik irtetea. Tratu txarrak eman dituena da garailea kasu horietan. Beste indarkeria mota bat da, sistema judiziala tratu txarrak emateko erabiltzea da.

Azken batean, biktimak, gehienetan, ez dira biktima perfektuak, antzezlana edo filma balitz bezala. Izan liteke gertatutako guztiaz ez oroitzea, kontraesan batzuk izatea, bere egoera ondo azaltzen ez jakitea edo frogak une egokian ez aurkeztea. Hori da errealitatea, eta erasotzaile askok hori baliatzen dute, kasua beren alde jartzeko. Abokatu garestiak hartzen dituzte. Botere asimetria dago eta hori salaketaren ondorengo prozesuan igarri egiten da.

Erasotzaileek, epaiketan erruduntzat jota ere, behar luketena baino kondena txikiagoa jasotzen dute kontrasalaketaren estrategiari esker?

Bai, tratu txarrengatik aurrez egon den salaketari indarra kentzeko modua da. Aurrekaririk ez badago edo emakumeak lehenago ezer ez bazuen salatuta, epaileak pentsa lezake bikotearen barruko liskar bat baino ez dela izan. Eraso matxistari larritasuna kentzen zaio. Epaile batzuek nahiago izaten dute bide errazetik jo eta biak absolbitzea. Beste zenbaitetan, ordea, epaileak ikusten du biek erabili dutela indarkeria, eta biei ezartzen die zigor berdina. Egoera hori ikusita, biktima askok akordioa egitea erabakitzen dute, azkenean erasotzailea eta biktima maila berean jartzen dira eta, gainera, epaiketak ez du aurrera egiten.

Egokiena borrokatzea litzateke, baina beti ez da gertatzen, askok nahiago dute aurrera ez egin, ondorioen beldur direlako. Tratu txarrak jasan eta, hala ere, indarkeriagatik emakumeak berak kondena bete behar izan duen kasu bat baino gehiago ezagutzen dut. Normalean ez dira zigor gogor-gogorrak izaten, baina kezka ugari datozkio emakumeari burura: Seme-alaben zaintzarekin zer gertatuko den zalantza eragiten dio, esaterako.

Nola animatu egoera horretan dauden emakumeak borrokan segi dezaten?

Emakumeak salaketa jartzera animatu behar ditugu, baina zer aurkituko duten garbi azaldu behar zaie. Babes egokia eman behar zaie, ez bakarrik legearen arloan. Baita osasunean, psikologian eta beste alor askotan ere. Era honetako prozesu bati aurre egitea gogorra da eta emakumea prest egotea komeni da, ahalduntze kontu bat da. Konpromiso politikoa eta soziala behar da, biktima ezin da bakarrik utzi egoerari buelta emateko ahaleginean.

Eraso egin dioten emakume bati zer gomendatuko zenioke, prozesuan ahalik eta bermerik gehien izan dezan?

Aurrena, eraso fisikoa bada behintzat, osasun zentrora joatea gomendatuko nioke, lekukotza egon dadila, eta ondoren salaketa jarri. Aholkularitza juridiko aproposa bilatzea ere ezinbestekoa da, salaketa jartzeak zer dakarren ezagutu behar du. Gainera, segurtasunaz arduratzea komeni da, maiz salaketa jartzea eta etxera bueltatzea norbere burua arrisku handiagoan jartzea da. Emakumeei orientazioa ematen dieten guztiek erantzukizun itzela dute, aholku egokiak emateko eta biktimaren ikuspegia errespetatzeko. Tsunami judiziala dakar salaketak, horri ezin zaio edonola aurre egin.

» "Beharbada bai, emakumeak egin du erasoa, baina atzean dagoena ikusi behar da, defendatzeko egin duen adibidez"

» "Epaileek, fiskalek, abokatuek eta abarrek formakuntza teknikoa izatea ez da nahikoa, genero gaiak ulertzeko formakuntza ere behar dugu"

Epaiketetan ari zaretenontzat, aldiz, zein da salaketa faltsuak atzemateko bidea?

Ustezko erasotzaileak salaketa jarri izanak ez du esan nahi faltsua denik. Berak bere ikuspegitik azalduko ditu gertaerak, izan liteke biktimak erasotzailea jo izana bere burua babesteko. Baina bereizi egin behar da zer den defentsarako erabilitako indarkeria. Horretarako, frogei kasu egin behar zaie, perituen edo lekukoen esanei. Salaketan deskribatzen diren gertakariak benetan hala gertatu diren begiratu behar da, batzuetan agerikoa da kolpe edo zauri bat defentsarako baino ez dela izan. Tratu txarren berri izaten dugunean, ezinbestekoa da ulertzea hori ez dela gertakari isolatu bat, arazo sakonago baten ondorioa baizik. Hori barneratu ezean, ez da erraza ikustea nor den benetako biktima, honek zer laguntza behar duen eta zer baliabide eskaini behar zaizkion. ■

Azaroak 25

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.

12.30 Elkarteratzea herriko plazan.

19.30 "Erradikalak gara" ikuskizuna Santa Anan.

OÑATI dabilen herria

Arabako gazte euskaltzaleak

URTE BEREAN BIGARREN TOPAKETAK EGINGO DITUZTE

Urtebeteko tarterik ere ez dute hartu bigarren topaketak egiteko. Lehenengoa 2017ko urtarrilaren 28an egin zuten eta bigarrena azaroaren 18an egingo dute. Ez da seinale txarra. Haizea Alonso Aberasturik eta Jon Insausti Bizkarrak errepikatu egingo dute. Urtarrileko topaketetan oso ondo pasa zuten eta orain gogoz eta jakin-minez gerturatuko dira Gasteiza.

Onintza Irureta Azkune
@oirureta
ARGAZKIAK: TOPAGUNEA

Arabako gazte euskaltzaleak elkartuko dira Gasteizen. Haizea Alonso baino gazteagorik apenas azalduko den topaketetara. 16 urte ditu, Gasteizen Lanbide Heziketan sukaldaritzari lotutako ikasturtea hasi berri du eta Mendialdeko Urizaharra herrikoa da. 3.000 biztanle bizi dira Mendialdean, Kanpezu du herri nagusia (1.200 biztanle inguru) eta Urizaharran 300 bat herritar bizi dira.

Urtarrileko topaketetara antolatze lanetan aritu zen Unai Vianak, Topagunean Gorbeialdeko Mintzalagunako koordinatzaileak, deituta joan zen, animatzeko esan zion eta Alonso joan egin zen. Pena du goizez ez zelako joan eta badakielako eguneko lehen zatian Araba osoko gazteek euskararen inguruan egiten ari diren esperientziak kontatu zituztela. Arratsalde-pasa hura asko gustatu zitzaion eta orain egun osorako doa. Ondo pasatzea ez da Alonsoren helburu bakarra, inguruko gazteei topaketetara joateko gogoa piztea nahiko luke, aisialdian euskara bultzatzea nahi duelako. Topaketak jendea gerturatzeko amua izan daitezkeela uste du.

Euskara etxetik eta ikastolatik jaso du. Aitak euskaraz badaki, amak ez. Izebek euskaraz egiten dute. Beste kontu bat da zenbat egiten duten euskaraz egunerokoan, Alonsoren ustez, nahi baino gutxiago. Urizaharran ia urte osoan euskara oso gutxi entzuten dela dio, baina udan giroa aldatzen dela, euskara gehiago entzuten omen da. Alonsok herriko eta inguruko herrietako lagunekin gutxi egiten du euskaraz, nahiz eta badakien haietako askok euskaraz badakitela. Aldiz, Gasteizen askoz gehiago egiten du, lagun gehienekin euskaraz aritzen da. Gasteizen egin ditu ikasketak, euskaraz, eta orain ere Gasteizen ari da ikasten. Esan genezake bere bigarren bizilekua dela. Arabako hiriburuan ditu lagun asko, ikastolakoak eta bestelakoak. Bere herriko eta hiriburuko giroaren artean halako diferentzia zergatik dagoen galdetu diogu eta hauxe esan digu: "Nik nabaritu dut, Gasteizen gazteen artean euskara gero eta gehiago erabiltzen da, nire inguruan behintzat bai, baina ez dakit zergatik den hala".

Topaketetara zein intentziorekin doan galdetu diogu eta esan digu jende asko joatea nahiko lukeela, ondo pasatzeko gogoa duela, euskara erabili nahi duela, eta nola ez, hirugarren topaketak antolatzea nahiko lukeela. Ez da ordea, topaketa helburu. Etxera, Urizaharrera, itzulitakoan honelako esaldiren bat entzun nahiko luke gazteen ahotik: "Zergatik ez dugu egiten halako edo bestelako?". Eta herria gaindituta Arabako kuadrillen artean lanean hastea nahiko luke.

Argantzunen gazteek helduko diote euskara elkarte ahulduari

Jon Insausti Bizkarra Argantzungoa da. Argantzun Espainiako Burgos probintziako udalerria da. Trebiñuko barrendegian dago eta Trebiñuko barrendegiko beste udalerria Trebiñu da. Argantzunen 500 biztanle inguru bizi dira.

Insaustik 20 urte ditu eta urtarrilean Unai Vianak gonbidatuta eta Trebiñuko bi lagunekin izan zen topaketetan. Asko gustatu zitzaion, oso polita izan zela dio eta uste baino jende gehiago (60 inguru) bildu zela du gogoan. Kuadrilletako esperientziak entzutea aberasgarria izan zela uste du eta haien artean diferentzia handiak ez daudela iruditu zitzaion. Bigarren topaketetan ere izango da, baina ez urtarrilean moduan. Bigarren honetan antolaketa lantaldean izan da, Urizaharrako Haizea Alonso bezalaxe. Hainbat bilera egin dituzte topaketak antolatzeko.

Urtarrileko topaketek ezten lana egin zuten gazte batzuen artean. Argantzu-

nen euskara elkartea dago Gutxisolo izenekoa, baina kideak zahartzen ari dira eta erretiroa hartzekotan dira. Topaketetan sua piztuta, gazte batzuek txanda egitea pentsatu dute, eta elkartzen hasi dira. Zaharrenak 24 urte ditu. Insaustiren gertueneko bidaideak bata Sasetakoa eta bestea Saratsukoa dira, Trebiñukoak alegia.

Argantzunen euskaldunak badaudela dio, baina gazte askok Miranda de Ebron ikasi dute, gaztelaniaz, eta euskaraz ez dakite. Bere ustez, Gutxisolo elkartearen inguruko jendea eta 40 urte inguruko batzuk dira euskaraz gehien egiten dutenak: "Nahiz eta euskaldunberriak diren, edo agian horregatik, euskara lantzeko lana egin dutelako, gehiago erabiltzen dute. Gazteen artean, berriz, gutxi".

Insaustik etxean euskaraz egiten du gurasoekin eta anaiarekin. Ikasketa guztiak berriz, Gasteizen egin ditu, Argantzungo ikastola ez zegoeneko garaikoa baita. Euskaraz ikasi du. Ez du Haizea Alonsok bezala diferentzia handirik aurkitu Argantzunen eta Gasteizen artean. Bietan saiatzen da euskaraz egiten, beste kontu bat da zenbatetan lortzen duen hala egitea. Banakako harremanetan askoz gehiago egiten du euskaraz eta taldean gaztelaniaz.

Topaketetarako gogoz dago, baina badaki egun hori mugatua dela. Prestaketa lanetan Arabako kuadrilletako gazteei ideia piloa bururatu zaie eta Insaustiri iruditzen zaio topaketak bukatu eta gerorako zeregina izango dutela. ■

Urtarrilaren 28an elkartu ziren lehen aldiz Arabako gazte euskaldunak Topaguneak antolatutako topaketetan. 60 lagun inguru bildu ziren.

IX Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2017

azaroak 22
Carlos Santamaria zentroa
DONOSTIA

Arnasguneak eta udalerri euskaldunak: gaurko eta biharko #ERRONKAK

Izena emateko epea: azaroak 17
http://www.soziolinguistika.eus/jardunaldia

Antolatzaileak: UEMA, Soziolinguistika Klusterra
Laguntzaileak: UEU, Euskal Herriko Unibertsitatea
Babeslea: Eusko Jaurlaritza

ODOL BILDUA ETA GARRAIATUA

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Bartzelona, 1936ko uztaila. Espainiako Gerra Zibila piztu zenean, Frederic Duran i Jordà medikua (1905-1957) Montjuïceko 18 ospitalean hasi zen hirira iristen ziren gerrako zauriuez arduratzeko. Erietxean, orduan, odol transfusio zuzenak egiten ziren, hau da, emailearen besotik hartzailearen besora, eta mediku katalana berehala konturatu zen maiz zauriuek emaile bakarrak eman zezakeena baino odol gehiago behar zutela. Gainera, Aragoiko frontetik Wenceslao Dutrem eta Serafina Palma lankideen gutuna jaso zuen, esanez zauriuak artatzeko odolik ez zutela. Ospitalea uztea erabaki zuen orduan, eta, Errepublikako Armadaren Osasun Zerbitzuaren babesaz, zauritu militar nahiz zibilei behar zuten odola helarazteko zerbitzua abiarazi zuen abuztu hasieran. Irailaren erdialdean lehen zazpi litroak iritsi ziren Aragoiko frontera. Munduko lehen odol transfusio zerbitzu modernoa izan zen.

Ordurako nolabaiteko transfusio zentroak baziren. Esaterako, Moskuko Sklifosovsky Institutuan transfusioak egiten ziren gorpuen odola erabiliz. Baina Duranen taldeak bazekien hori kaltegarria zela hartzaileentzat. Londresko Gurutze Gorriak ere bazuen zerbitzu bat, baina transfusio zuzen mugatuak egiten zituzten soilik. Eta emaileak frontera eramatea ez zen bideragarria.

Eskura zeuzkaten bitarteko urriekin, dagoeneko asmatuta zeuden antikoagulatzaileak hobetzen ahalegindu ziren, baita odola esteril mantentzeko metodoak eta gordetzeko ontziak ere. Gainera, lehenengoz, herritarren artean odola emateko kanpainak egin zituzten. Eta garraioaren arazoari ere konponbidea aurkitu zioten: arraina garraiatzen zuen lau tonako *Diamond* kamioia egokitu zuten.

Bidalketak astero egiten ziren frontera eta bertako ospitale guztietan gutxienez 35 litroko bankua izaten ahalegindu ziren.

30 hilabetean Bartzelonako transfusio zerbitzuak 28.900 emaile izan zituen eta 9.000 litro odol prozesatu eta prestatu zituen. Bigarren Mundu Gerran erabat zabaldu zen Duranen metodoa.

KATALUNIAKO MEDIKUNTZAREN HISTORIAKO MUSEOA / DURAN I JORDÀ ARTXIBOA

Ezkerrean, Frederic Duran i Jordà (1905-1957). Azpian, hark abiarazitako odol transfusio zerbitzuko unitate mugikorra. Eskuineko argazkietan, mediku katalana odol transfusioak egiten Bartzelonako 18 ospitalean eta tren bagoi batean.

Haiek erabili zuten teknologia zaharkituta dago egun, baina mediku katalanak ezarritako oinarriak indarrean daude oraindik.

1939ko otsailean Frederic Duran i Jordàk Kataluniatik alde egin eta Ingalaterrara emigratu zuen, Britainiar Gurutze Gorriak gonbidatuta. Hemoterapiaren aitzindaria Manchesterren hil zen 51 urte zituela, leuzemiak, odoleko minbiziak, jota. ■

Erregistratutako lehen eklipsea

Cambridgeko Unibertsitateko ikerlari talde batek ondorioztatu du erregistratutako lehen eklipsea K.a. 1207ko urriaren 30ean gertatu zela, *Astronomy & Geophysics* aldizkarian argitaratu dutenez. Bi iturri erabili dituzte ondorio horretara iristeko: batetik, Bibliako Itun Zaharrak, zehazki Josueren liburuak, aipatzen du Eguzkia eta Ilargia "geratu" egin zirela; bestetik, Ramses II.aren seme Merneptah faraoiaren erregealdiko grabatu batek Kanaango kanpainan fenomeno astronomiko bitxia gertatu zela jasotzen du. Ikerlarien ustez, ez zen erabateko eguzki eklipsea izan, eraztun eklipsea baizik, eta emandako data da ezaugarri horiekin bat datorren bakarra. ■

The best networking 4.0

Parte hartu!

BASQUE INDUSTRY 4.0

THE MEETING POINT **2017**
Basque Industry 4.0

azaroak 22
Kursaal
Donostia-San Sebastián

spri.eus

GRUPO spri TALDEA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Azalaren koloreak

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Mutazio batetik dator "tempranillo zuria", 1988an ezustean Errioxako mahastizain batek aurkitutako mahatsaldaera.

Beltzetik zurira minbizi bat dago. Ardo beltzetik ardo zurira minbizi bat dago.

1988an Errioxako Murillo del Río Lezan, Jesús Galilea Esteban mahastizainak bitxikeria bat topatu zuen bere mahasti batean. Mahats beltza ematen duen "tempranillo" aldaerako mahatsondo batean (*Vitis vinifera*) mahats mordo zuri bat aurkitu zuen. Hura eman zuen adarretik abiatuta, txertatu eta txertatu, "tempranillo zuria" aldaera izango zenaren lehen mahatsondoak sortu zituzten. ADN azterketak egin da, bi aldaerak, azal urdin-beltza eta azal zuri-horizta dituztenak, ia erabat berdinak direla antzeman zuten. Beren informazio genetikoaren %97,8 bera da. %2,2 ziztrin horrek bereizten ditu. Baina emaitza zeharo desberdina da: batetik ardo beltza sortuko da eta bestetik zuria.

Mutazio bat gertatu zen mahatsondo sonatu hartan. Mutazio horretan kromotripsia gertatu da, hau da, geneak eta informazio genetikoa daramatzan kromosomaren haustura masibo baten ondoren, etendako zatiak lehengoa ez bezalako hurrenkera batean elkartzen dira. Ondorioz aldaketak gerta daitezke. Gure espeziean tumoreen sorkuntzarekin eta zenbait gaixotasun genetikorekin lotzen da kromotripsia.

Horrela sortua da "tempranillo" zuria. Eta dagoeneko hedatzen ari da Errioxa jatorrizko izendapeneko lurretan. Hor sortua da, eta lehen txerto haietatik hazitako mahatsondoen kimuak txertatuz zabaltzen ari dira, beraiek nahi duten sailetara, betiere Errioxa markapeko Nafarroa, Araba eta La Riojako lurretan. Ez omen da "tampranillo" beltza bezain emankorra, baina berria izateak eta bere sorreraren bitxikeria denboran eta kokapenean hain hurbilekoa izateak sona polita eman diote. Dezenteko alkohol maila duten ardoak ematen omen ditu.

Deskuiduan ardo zuri berri honek izen pixka bat hartu eta dirua egiten hasten bada, bateren bati zanga-zanga batzuekin txilibrizkatu eta mahasti berezi horietako adar batzuk hartu eta txertatu eta bere kasa ugaritzen hasteko gogoa etorriko zaio. ■

Orozkoko Gaztaina Eguneko erromeria, atzean gaztainak gordetzeko kirikiñausia ageri dela.

Gaztainari lotutako ondare kulturala berreskuratzen

Garazi Zabaleta
@tirikitrann
ARGAZKIAK: OROZKOKO UDALA

Kantauri isurialde osoan dago –edo behintzat egon izan da– gaztainarekin lotutako tradizio eta ohitura handia, eta lotura hori aztertzeko ikerketa ugari egin izan dira Galizia eta Asturiasetik gureraino. Orozko (Bizkaia) inguruan katalogatuta dauden kirikiñausi kopururik handienetakoa dagoela kontatu digu Jose Angel Aramendi Supelaur kultur elkarteko kideak. Ondare hori guztia baliotan jartzeko helburuarekin antolatzen dute urtero Orozkoko Gaztaina Eguna. Urriaren 29an ospatu dute hamabigarren edizioa, urteroko moduan kirikiñausi handienetakoaren ondoan.

Kiriki-zer?

Garai batean gaztainak gordetzeko erabiltzen ziren harri multzoz osatutako eraikinak dira kirikiñausiak. Izen hori hartzen dute Orozkon behintzat. Eraikin zirkularrak dira gehienak, eta handienak 7,5 metroko diametroa eta ia bi metroko altuera ditu. "Imajinatu zenbat gaztaina biltzeko edukiera zeukan, eta beraz, gaztainak zenbaterainoko garrantzia zuen hemen", dio Aramendik.

40 kirikiñausi inguru dituzte katalogatuta Orozkon, baina gehiago ere badirela adierazi digu Supelaureko kideak. Azken urteetan mendiko ibilbide zirkular bat antolatzen aritu dira elkarteko kideak, kirikiñausietatik eta bestelako kultur ondare elementuetatik pasatzen dena: antzinako teileri labe bat, errota zahar bat, txondorlekuak eta abar. "Iaz amaitu genuen ibilbidearen trazatua eta Udalak onespena eman zuen bidea egokitzeko. Orain informazio panelekin osatuko dugu", azaldu digu Aramendik.

Gaztainaren garrantzia

"Urriko azken igandean egiten dugu Gaztainaren Eguna. Aurten ere han goian egon gara 600 pertsona inguru", dio elkarteko kideak. Herritarrek urtero erantzun oso ona ematen dutela kontatu digu, interesa badagoela. Erromeria kirikiñausi handiaren ondoan egiten dute, eta nola ez, gaztain erreak izaten dira protagonistetako batzuk. "Ondare guzti hori erakustea eta aintzat hartzea oso garrantzitsua da gure ustez, joandako bizimodu baten iragarpena egiten digulako". Askotan gauzak azkar xamar ahazten baditugu ere, egia baita gaztainondoak duela gutxi arte oinarrizkoak izan zirela inguru hauetako pertsonen bizitzan: elikatzeko edota egurrerako batez ere, baina baita istorio eta mitoak sortzeko ere. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Azaroak 16: Lezo
Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 23: Deba
18:30ean Hazitik Ekodendan, *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 28: Idiazabal
19:00etan Udaletxeko Aretoan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 30: Berrobi
19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 1: Bermeo
19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 2: Beasain
Azokan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 6-10: Durango
Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 12: Segura
19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikuluak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: **bizibaratzea@bizibaratzea.eus**

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *"EUSKAL HERRITIK KOLEKTIBOTASUNEAN ERAIKIZ" LIBURUA* | 3

Alternatiba soziekonomikoen kaiera

"Gizarte jasangarriak, justuak eta bidezkoak eraiki ahal izateko, errotik ezberdina izango den beste eredu baterako trantsizioa egin behar dugu, bizitzaren zainketa eta planetarena erdigunean jarriko dituena". Argitalpen honen helburua trantsizio hori laguntzea da, alternatiba ezberdinak ezagutaraziz eta agenda alternatibo bat ezarriz: Bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak biltzen ditu horretarako. Egungo garapen-ereduaren aurrean alternatibak bilatu behar direla sentitzen duten hainbat kolektiboetako erakundek (gizarte-mugimenduak, GKEak, sareak edota sindikatuak) kolektiboki egin dute lan hau (Desazkunde eta Bizitze ona V. Topaketetan elkartutako erakundeen sareak) eta Mugarik Gabe GKEk koordinatu du. Lau ardatz hauei buruzko planteamenduak aurkituko ditugu: zainketak, elikadura burujabetza, desazkunde energetikoa eta ekonomia birkokatzea.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

MUGARIK GABE

PDFan irakur dezakegu argitalpena osorik edo atalka, honako helbidean:
www.decrecimientoybuenvivir.info/eu/euskal-herritik-kolektibotasunean-eraikiz-argitalpena

#zainketak
#elikaduraburujabetza
#desazkundea
#ekonomia

Azaroko sariak

1

ARGIAren 2018ko egutegia
2 ale

2

***Korrontzi dantzan* CD, DVD eta liburuxka**
2 ale

3

Mugarik Gaberen *Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz*
2 liburu

4

Alain Mirandaren *Txingudi* argazki liburua
2 ale

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

DANI BLANCO

Xabier Ricok ARGIA Eguneko Topaketetara idatzita eraman zuen bere ekarpena.

ARGIA JENDEA MINTZO

ARGIA argia da

Orain krisi latzean dagoen erregimen honen hasieran ezagutu nuen ARGIA. Euskal Herrian Euskaraz-en nenbilen ordurako, euskara ikasi berria.

Astekari bat euskaraz! Horixe behar nuen nik. Informazioa astero. Gerraren giro latzean euskara dexente galdua zuen gure amak: "ARGIA, hori gure etxean zegoen!".

"Prentsa euskaraz" egunetan, hor ibili ginen orain baino askoz erdaldunagoa zen Gasteiz hartan harpidedunak handik edo hemendik ehizatu nahian. Paperaren kalitatea ez zen ona, baina azal asko eder ederrak ziren. Eta edukia, interesgarria. Hala ere, arabar gisa ikusten nuen gutxitan islatzen zirela Arabako kontuak ARGIAn.

Izan nuen garai hartan Joxemi Zumalabe eta beste lauzpabost gazteren gaupasa heroikoen berri. Inor miresten banuen garai hartan gazte horiek ziren. Gero, urte batzuetara Lorea Agirrek idatzitako *Joxemi Zumalabe* liburua begiak malkotan irakurri nuen. Agirreren arabera, gazte horien gaupasa latzetan ogitartekoetan oinarrituko dietak izango zuen zer ikusirik Zumalaberen heriotza goiztiarrean. Epopeia hori azaldu nien orain hiru urte Eslovakiako Nitra hirian bildu ziren esperantistei, eta han ere baten bati busti zitzaizkion begiak.

EHEkook hasi ginen ARGIAren banaketa xumea egiten Gasteizen. Oker ez banago, Herrikoia eta Axular liburu-dendetan, eta orain Laboral Kutxaren bulegoetan inkrustaturik dagoen Dato kaleko kioskoan. Azken hau oso gogoan dut: Hamar ale eramaten nituen eta hiruzpalau saltzen ziren.

Harpidetza bat nola lortu nuen ez dut ahaztekoa. Txipi Ormaetxeari proposatu nion harpidedun izatea. Zalantzan ikusi nuen, ez zuen oso garbi ikusten. "Begira nire logelako armairuaren gainean ditudan ale zahar guztiak –80 edo 100– oparituko dizkizut". Nik dakidala ez da damutu.

Gure irakasle garaian ikas-bidaiarako izan zuten ikasleek ARGIAren egutegia diru iturri. Baina noizbait ikasleren batek ez zuen ondo ulertu: "Zuretzako dirua atera nahi duzu?" militantzia klasikoa ezin ulerturik...

Ederra izan zen ARGIAren kumea, *Euskaldunon Egunkaria*ren sorrera.

Aspaldiko urte batzuetatik hona goraino igo da ARGIAren kalitatea, gaien trataera, naturarekiko kezka, genero ikuspegia, espiritu kritikoa. Arabarron errealitatea egoki islatzen da bertan.

Aurten Italian Egalecen (Berdintasunerantz) talde esperantistak antolatuko genero berdintasunari buruzko tailerrean, emakumeen presentzia aldizkarietako argazkietan aztertzen egon ginen. Gero ARGIA ere gainbegiratzea proposatu nien. Harrituta eta pozik jendea. Argazkietan %50a baino gehiago emakumeak ziren.

Astero ARGIA eskutan hartzen dudanean mundua eraldatzea posible dela sinisten dut berriro. Eta mundua eraldatzeko tresnak ematen dizkigu. Eta sakelakotik eta ordenagailutik ere bai.Gasteizko giro eraldatzailetarako tresna bikaina. ■

Xabier Rico Iturriotz

Bertso Txapelketako finalerako sarrerak zozketan ARGIA jendearentzat

Barakaldoko BECerako lau sarrera zozketatuko ditugu ARGIA JENDEAren artean: Bi sarrera bikoitz izango dira. Zozketan parte hartu nahi baduzu, idatzi komunitatea@argia.eus helbidera eta eman izen abizenak, telefonoa eta helbidea. Parte hartzeko azken eguna abenduaren 10a izango da, eta hurrengo egunean egingo dugu zozketa, irabazlea www.argia.eus webgunean iragarriz.

Oraindik ez bazara ARGIA JENDEA, garaiz zaude proiektu hau babestu eta oraindik BECen amaitzeko.

AGENDA

Azaroak 18, Errenterian, Ekonomia Solidarioaren V. Azoka

- Ekonomia Sozial Eraldatzaileko Olatukoopeko kide izanik, ARGIA ere bertan egongo da, gure proiektua azaltzen eta gure argitalpen eta gainerako materialak saltzen.
- 11:00etatik 20:00etara jardunaldiak, tailerrak eta txosna-gunea izango dira Merkatuzarrean.
- Zatoz ARGIAren mahaira, proiektuari buruzko iritziak trukatzera edo proposamenak egitera eta ospa dezagun elkarrekin bizitza!

Abenduak 2, Usurbilen, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean* lan berriaren aurkezpena ARGIAren alde

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak bi emanaldi antolatu ditu egun bererako: 16:00etan eta 18:30ean.
- Sarrerak eskuratzeko: Usurbilgo Bordatxo tabernan eta Marije arropa dendan; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburu-dendan; Astigarragako Ikatza tabernan; Urnietako Ezeizan; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Zumaiako Tipitaki kafetegian. Edo www.argia.eus-en dendan.

Uxue Alberdi idazlea

”Gatazkaren alde batera edo bestera lerratu ginen, eta gure kontraesanak eta ahultasunak irentsi genituen”

Jenisjoplin nobela plazaratu berri du Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984). Iragan hiru hamarkadatan garatuta dago, gatazka politikoaren zurrunbiloan. 30 urteko aldea duten bi belaunaldiren bizipenak eta talkak jasotzen ditu, besteak beste. Idazleak trebeki uztartu ditu bi garaiko gorabeherak eta pertsonen jiteak; taberna zuloko giro hitsa hala nola gaztetxeetako giro lehergarria. Idazlea eta bertsolaria da Alberdi. 2013ko Txapelketa Nagusiaren finalaren pasarte batek badu munta istorioan, doi-doi aipatua bada ere. Nobelak ertz anitz eta zorrotzak ditu. Elkarrizketatzaile honek ertz ziztagarri horietako bati heldu dio solasaldia abiatzeko, irristatzeko aukeraz kontziente. Uxue Alberdi bertsolaria eta Nagore Vargas (*Jenisjoplin)* protagonista ausarten antzo.

Mikel Asurmendi
@masurmendi
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

“Ez nintzen bertsozale porrokatua, horretan ere ez nintzen sartzen abertzale inbentariatuaren soslaian...” dio Nagore Vargasek nobelaren amaiera aldean.

Ni “abertzale inbentariatuaren” soslaia duen familiakoa naiz: euskalduna, bertsozalea, mendizalea... Hala ere, *Jenisjoplin* protagonistaren jatorri antzekoko lagunak izan nituen nerabezaroan. Institutu garaian –ni ikastolatik nentorren–, espainiar jatorrikoen seme-alabak lagun egin nituen. Bitxia da, kasualitatez, ez nintzen lagun egin *a priori* tokatzen zitzaizkidanekin, zortzi abizen euskaldun zeuzkatenekin, espainiar jatorrikoekin baizik. Beste errealitate batzuk ezagutzeko parada izan nuen. Haietako batzuk euskaldunak ziren, Nagoreren moduko erreboltariak [*Jenisjoplin*ek Arantzazu Alkorta amarengandik jaso zuen euskara], beste batzuek euskara bazekiten, baina gaztelaniaz aritzen ziren normalean, batzuek familiako ezkertiarren ideologia sendo erakusten zuten, baina “maketoak” epiteto pean, Euskal Herriaren askapenarekiko errezeloak zituzten. Lagun horien lokalera joaten nintzen eta paretan espainiar bandera zegoen ikurrinaren ondoan. Espainiako bandera niretzat aberrazioa zen. Hamabi urte inguruan gure herrian zegoen identitate nahasketaz jabetzen hasi nintzen. Nobelan hori islatu nahi izan dut.

Gatazka politikoak nolako eragina izan du zure belaunaldiko bertsolariarengan?

Garaiaren arabera, gatazkarekiko harremana adinaren araberakoa izan delako, oso ezberdina. Ez da berdin 74an, 84an edo 94an jaio izana. Gatazkaren inguruko gertakariak modu ezberdinez iltzatu zaizkigu buruan, eta horien arabera ari gara bertsotan egun ere. Gure belaunaldikoek gatazkaren unerik gordinenak ume eta nerabe ginela bizi izan ditugu, artean pentsamendua antolatu gabe geneukala, gaztetxoak gineneko esperientziak gure baitan ditugu oraindik ere. Inguruan ez zitzaigun gatazkaz “ganoraz” hitz egiten, eta nerabe batek pentsamendua modu bikoan antolatzen du: ona eta txarra, polita eta itsusia. Tamainako gatazka batek erdian harrapatzen zaituenean jasotzen dituzun mezuak oso kontraesankorrak iruditzen zaizkizu. “Hiltzea txarra da” esaten dizute, baina gero gatazkaren erdian zaude, eta ohartzen zara faktore asko daudela jokoan, ez dakizu horren aurrean nola jokatu.

***Jenisjoplin* euskal gizarteak bizi izan duen gatazkaren erretratu bat da. Zure esperientziaren harian ehundua, gizarte honen konplexutasunaren isla.**

Nobelan identitateak nahastuta ageri dira, eta horiek talka egiten dute batzuetan. 1990eko hamarkadan Elgoibarren ezagutu izan nuen marjinalitatearen lekukotasuna da nolabait. Hori nire baitan egon da orain arte. Une batez, Nagore Vargas pertsonaia osatzea erabaki nuen,

baita bere ingurua eraiki ere. Gatazkak hainbat hamarkada iraun du, eta garaiz garai, ñabardurak ñabardura, gehienok alde batera edo bestera lerratu ginen, gure kontraesanak eta ahultasunak irentsi genituen, eta bakoitzak gure taldearekin batera egin genuen aurrera.

Zure belaunaldiko bertsolariek nola bizi izan duzue gatazka, bertsotan jardutean?

Bada, non eta nola ginen arabera. Ni ez nintzen atrebitzen arrakaletatik kantatzen, kantatzen nuen nire ideiak traizionatu gabe, gutxi-asko, parean nituenak ados egon zitezkeenarekin bat eginez. 22 urterekin hasi nintzen, 2006an. Hasteko, nahiko lan neukan bertsoa muntatzen. Plazara salto egiten duzunean lehenbizi ulertu behar duzu bertsoak nola funtzionatzen duen saio bakoitzean, generoak ikasten zoaz: bertso-afaria, jaialdia, ekitaldia, bertso-poteoa, txapelketa.... Aldi berean, zurekin ari diren bertsolariak ezagutu behar dituzu.

» "Idazle bezala oraindik deskubritzen ari naiz zertan moldatzen naizen ongi samar eta zertan ez dudan asmatzen"

Gero, heltzen zoaz eta kritikoagoa bihurtzen zara zure emanarekin. "Ni zertara nator hona?", galdetzen diozu zure buruari. Zure ahuluneak indartu ahala zure kontraesanetatik kantatzen duzu. Garaiak eta gaiak aldatuz doaz, eta ikusten dituzu zure aurreko belaunaldikoek ere gauza batzuk zalantzan jartzen dituztela, eta zuri ere irekitzen zaizula bide hori. Gure belaunaldiko bertsolariok (Julio Soto, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi...) oso potente den belaunaldi baten ondoren gatoz [Lujanbio, Iturriaga, Elortza, Maia, Irazu...]. Haiek erabat eraldatu zuten aurrekoen bertsolaritza, politikoki nahiz estetikoki. Gu horien anaia-arreba gaztetxoak izan gara, haien babesean aritu gara. Orain gure ingurua guk marrazteko garaia iritsi da, baita gatazka bera marrazteko ere, hori da nahi duguna, baina ez zaigu erraz egiten ari, ezta gu baino gazteagoak direnei ere. Bertsotatik harago, orain dela hamar bat urtera arte, egon da hizkuntza-modu bat politikaz mintzatzeko, baina nola jarri ahotsa eta estetika gure marko soziopolitikoari? Nola jarri gaur egun 20 eta 50 urte dituztenak elkarrekin politikaz hizketan? Nola egin elkarrizketa hori? Zer kodetan? Oraindik ere zubiak falta ditugu horretarako.

Mereziko luke gatazkaren memoria egingo lukeen nobela idaztea, bertsolariak protagonistak izaki.

Bai. Nik ere pentsatu izan dut hori inoiz, baina oso zaila da. Oso herri txikia ga-

relako, pertsonak eta pertsonaiak oso identifikagarriak izango zirelako, kasuon, bertsolariak. Ondo egitea zaila da, baina oso mundu interesgarria da, fikziora apenas eraman dena. Egia da, norbaitek asmatuko balu bertsolarien ingurua nobelara eramaten, testuinguru izugarri aberatsa islatuko lukeela.

2013ko Txapelketa Nagusiko finalaren une bat ageri da nobelaren amaieran; BECen. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusen arteko buruz burukoa hizpide, Amets txapeldun jalgi da. Nagorek "Itzel. Erromak heroiak maite ditin" diotso Irantzu lagunari. Gai horren harian, "gure belaunaldiko bertsolari batzuk ahultasunaren kultura defendatzen hasi dira" esan duzu zuk, "heroien kulturatik zaurgarritasunaren kulturara bidean gaude" esan ere. Sakondu ideia horretan, arren.

Gatazkaz edo beste hainbat gaiez kantatzea eta horiei zentzu politikoa ematea ez da samurra, ahultasunetik kantatzea ez da erraza, zaurgarritasuna ez dela arrazionala ematen du. Oraingo erronka hori da hain justu, zalantzak eta sentimendu kontrajarriak marko politiko batean sartzen asmatzea. Baina, nola eraiki testuingurua? Hau da, zaurgarritasuna, mina, amorrua eta oinazea ez izatea kontu pertsonalak eta pribatuak. Gatazka politikoak utzitako zauriak, bakoitzak bereak ditu, eta horiei bide eman behar zaie. Liburuko pasarte hori, pertsonaiek bertsolari txapelketako buruz-burukoa komentatzen dutenekoa, garaian bat egin zuelako sartu dut nobelan, hau da, Nagoreren ospitalizatzeak eta Txapelketak bat egin zutelako denboran. Eta baita Ametsek eta Maialenek egin zituzten aukerek edo hartu zituzten rolek jorratu nahi nuen gaian sakontzeko aukera ematen zidatelako ere.

Zer adierazi zuten rol haiek?

Bertsotan epika asko egin izan dugu, eta finaletan asko egon da epikatik. Entzuleok ere, nahi gabe, bertsolariei epika eskatzen diegu. Ametsek final hartan guardia zibil baten roletik eta *Sarri*-renetik kantatu zuen, besteak beste, eta altzoa hitza emanda, ama totalari kantatu zion; figura handiei, oso gauza normala dena, seguru asko, gehienok egingo genukeena eta ez berak bezain ondo. BECen zaude, 14.000 pertsona dituzu aurrean, eta inertziak epikara eramaten zaitu. Maialenek, berriz, pultsu horiei ihes egin zien, antiheroiak marraztu zituen. Itzultzeko garaiaz jardun zuen, baina ez zen Euskal Herrira itzultzeaz aritu, Hego Amerikara baizik. Zaharrak zaintzen aritu den emakume etorkinaren azalean jarri zen. Antiheroi bat. Eta altzoa aditzean kontzienteki ihes egin zion ama totalaren magalari. Gure heroiei eta mitoei iheska etengabe. Gure garaien isla izan ziren bertsoak, niri askorako balio zidaten, Maialen irudi handietatik urrun ikusi nuen. Batzuei Maialenen jarduna lausoa egin zitzaien, bertsoak ez zitzaizkien iritsi. Nagore eta Irantzuk nobelan diotenez "hiltzeko denok nahi dinagu epika".

» "Identitateaz hitz egiten dugunean, gurea bezalako herri txiki batean, esentziara jotzen dugu, nondik gatozen eta zergatik galdetzen dugu"

Epikaren kontrako pultsuari eusten dioenak irabaz lezake txapela?

Jakina. Baina ertzeko bidea, ahularena, zaurgarritasunarena, antiheroiena... zailagoa da, ez baititu emozio primarioak galdatzen. Halako bideek barruragoko geruzetatik tiratzen dute eta pentsamenduaren sakontasuna exijitzen. Ertzak ukitzen direnean, ibili gabeko bideetatik ari denean bertsolaria, ez da ziurra Erromak segiko ote dion.

Nobelara itzuliz, "Nire izeba Karmen Vargas hiesak jota hil zen 1987ko maiatzean. Hogei urte zituen. Zazpi urte lehenago, 1980ko goiz batean, Rosa Morenok, nire amamak xiringa bat aurkitu zuen etxeko aterki-ontzian" dio Nagorek. Nobela, baina, 2010ean hasten da.

Hainbat garai eta espaziotan garatua eta girotuta dago nobela, horiek ondo uztartzea izan da gehien kostatu zaidana. Hainbat inflexio puntu daude, esaterako, Nagoreri hiesa duela diagnostikatzen diotenekoa. Hori ezin nuen hasieran jarri, baina ezin nuen asko atzeratu ere, beraz, bi kronologia paralelo aurrera eramatea erabaki nuen, bata 82tik 2003 ingurura arte, eta 2010etatik 2014ra doana bestea. Bietan erritmo diferenteak erabiltzea erabaki nuen. Bigarrenetik hasten naiz, garai horietan ekintza asko dago eta protagonisten dialogoak biziagoak dira, iraganeko pasarteak narratiboagoak eta deskriptiboagoak dira. Bi garaien txandakatzeak elkarri lagundu ziezaioketela konturatu nintzen, iraganean gertatua ulertzeak lagundu ziezaiokeela irakurleari oraina ulertzen, egungo Nagore ulertzen, bere erabakiak nondik zetozen, bere esanei beste sakontasun bat ematen.

Nagoreren bikotekidea Luka Moretti da. Istorioari ukitu egokia ematen dio, bere izaera aproposa da gatazka adierazteko.

Batez ere, oso lasaia delako. Idazten ari nintzela, *La sociabilidad del sur* izeneko artikulua irakurri nuen. Hegoaldeko gizartearen soziabilitatearen gaineko bost ezaugarri azpimarratzen zituen testuak. Lukak bazeuzkan horiek, baina horiek irakurtzean areago osatu nuen bere izaera: jendetasuna, lasaitasuna, jolasa, dramarik eza, denbora bizitzeko beste modu bat. Nagore iparraldekoagoa da, emaitzak behar ditu segituan, gauzak ulertu eta arrazionalizatu... Lukak arazoei malgutasunez begiratzen die, badaki gauzak esaten zeharka, geroko uzten... Nagorek ulertu behar du Luka zergatik dagoen berarekin, Lukak ordea, ez du horretaz hausnartu beharrik. Luka, Euskal Herrikoa eta mundukoa da, ez dauka hemen sustrairik, bere identitatea ez da esentziala, eraikia baizik. Identitateaz hitz egiten dugunean, gurea bezalako herri txiki batean, esentziara jotzen dugu, nondik gatozen eta zergatik gadetzen dugu. Lukarentzat zergatiak baino zertarakoak balio du, maitasuna ez da zergatik baizik eta zertarako. Borroken dileman ere berdin. Zertarako? Ez zergatik?

Nagore ospitaleetan ikusi dugu. Ospitaletako giroa ongi hausnartu duzu, baita hiesari buruz ongi ikasi ere.

Bai. Eskerrak eman behar dizkiot Felix Zubiari [Donostia Ospitaleko Zainketa Intentsiboen Unitatean egiten du lan. Bertsolaria da], nobelako alderdi medikuetan lagundu didalako. Horrelako gai batean sartuz gero, ezin nuen pintzel lodia pasa eta kito. Zehatz idatzi nahi izanez gero, ikasi behar nuen. Felixek Donostiako Infekzioaren Unitatea erakutsi zidan. 80ko hamarkadan egin zuten, eta oraindik ere geletako barro-

teak mantentzen dira, suizidio saiakera asko omen ziren. Gaur egun ere, unitate horretara doazen erabiltzaileen %90 hies diagnostikodunak dira. Bi egunean behin hies kasu bat diagnostikatzen da. 90eko hamarkadan atera ziren liburu asko irakurri dut. Desintoxikatzen ari ziren gaixoen senitartekoen gutunak eta medikuek eta hildakoen gurasoek emandako hitzaldiak, bestalde. Liburu horietako bat da Justo Arriolaren *A los pies del caballo*. Arriola elgoibartarra da, Karmen Vargasen belaunaldikoa. Tentuz irakurri dut, nire belaunaldikoen ikuspegitik idatzi nahi nuen, aurrekoen eragina gehiegi jaso gabe, bestela nobela ez litzateke Nagore Vargas protagonistaren begiradatik kontatua izango.

Liburua bizia da, neurri handi batean elkarrizketaren bidez eraikia.

Bai, idazleok gure ahaletatik egiten dugu. Nik istorioa buruan neukan, banekien zer kontatu nahi nuen, eta proba asko egin dut aurretik. Horietako batzuk baliagarri izan zaizkit eta bestetzuk ez. Editoreari behin esan nion, "hasi naiz pasarte hau luze deskribatzen, eta ohartu naiz ez naizela Saizarbitoria". Hau da, ez dakit hondartzan bainatzera doan emakume bati buruzko sei orrialdeko testua eraikitzen, funtzionatzen duen testua, noski. Oraindik ez behintzat. [*Lili eta biok* nobelaz ari da]. Niretzat eszena horiek balio literario izugarria dute. Saizarbitoriak badaki egiten, bakoitzak daki zeintzuk diren bere ahalak eta mugak... Ni oraindik deskubritzen ari naiz zertan moldatzen naizen ongi samar eta zertan ez dudan asmatzen.

Bertsolaria eta idazlea zara. Nola sentitzen zara tratatua idazle bezala? Bertsolariak idazleak baino hobe "tratatuak" direla esaten baita. Edo ez?

Ni bi jardunetan ari naiz, biak gustatzen zaizkidalako. Zorionez, sentitzen dut irakurle multzo baten arreta badaukadala. *Jenisjoplin* hiru urteko lana izan da, niretik ahal izan dudan guztia eman dut, prozesua oso intentsua eta neketsua izan da, baina oso polita. Urte batez lo gutxi egin dut, gerora faktura pasako didala kezkatuta ibili naiz, aldi berean plazan bertsotan aritzeari utzi gabe idatzi baitut, eta bi umeren zaintza ere tartean. Nahiko estutu dut nire burua zentzu horretan.

Zuk diozun idazleekiko trataeraz, pentsatzen dut oso kasu diferenteak daudela. Idazle bakoitzak jasotzen duen arreta diferentea da, eta idazle bakoitzaren sentsazioak ere –arreta horrekiko– diferenteak izango dira. Eta, egia da, ziur aski, idazleak egiten duen lanaren eta jasotzen duen arretaren arteko proportzioa ez dela beti justua. Baina ezta bertsolarien kasuan ere. Ulertzen dut hainbat idazlek behar bezalako arreta bereganatzen ez dutela esatea, baina aldi eta era berean ezagutzen ditut beste hainbeste bertsolari berdin sentitzen direnak. Gaur egun, plazaz plaza sarritan gabiltzan bertsolariak ez gara hainbeste ere. Adibidez, badaude txapelketetan oso maila ona ematen dutenak eta plazan horren araberako tokirik ez dutenak. "Bizitza ez da logikoa ez justua ez koherentea: ikasi horrekin bizitzen", bota zidan behin erronka psikologoak. Saiatzen naiz. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Barne-bidaia baten lekukotza

Amaia Serrano Mariezkurrena



Golgota
XABIER MONTOIA
Elkar, 2008

XXI. mendeko Europan ikusi ditugun zenbait gaitzekin lot liteke kalbario hitza, baina lehenago ere izan dira oinazez beteriko gatazkak. Horietako bat 1936ko Gerra izan da gurean. Ez bakarra, noski, ezta azkena ere. Haatik, Xabier Montoiak bere lanetan agertu ohi dituen kezka soziopolitikoak ezagututa, nekez esan liteke obra hau 36ko Gerrari buruzko "beste eleberri bat" denik, narrazioa garai horretako gertakari historiko batek irekitzen badu ere.

Nafarroan gaude, 1936ko abuztuaren 15a da, Amabirjinaren eguna. Afalorduan, indarrez sartu da gizonezko talde bat Felisaren familiaren etxean, fusilak eskuetan. Haren aita eraman nahi dute, baina alaba zaharrena jarri zaie bidean. "Gorriaren familia" da, eta aita-alabak egun horretan bertan desagerrarazten dituzte, hala gainerako kideen patua idatzita utzirik. Hasiera indartsua du eleberriak; Kafkak zioen bezala, buruan jotzen zaituen horietakoa da. Tentsio horri bide ematea, ordea, ez da erraza, eta pasarte batzuk astun gertatzen dira. Felisaren barne-munduaren kontaketa da eleberriaren lorpenik handiena, eta, inoiz haren erabakiak guztiz ulertzea zail gertatzen bada ere, Josefina Lambertoren lekukotza du oinarri istorioak, bere horretan sinesgarri gertatzeko zail diren pasarteak barne.

Esperanza eta Felisa, itxaropen eraila eta zoriontasun lapurtua. 36ko Gerrako biktimak dira, baina gerra handia gerra txikiagoekin ere nahasten da. Haien ahizpa Margarita bere senarrak jipoitzen du, Felisa moja sartzen denean Elizak kolpatzen du, modurik zitalenean, Esperanza fisikoki bortxatua da, eta haien ama, aldiz, publikoki makurrarazia.



Xabier Montoia idazlea (Gasteiz, 1955).

Felisaren erbestealdi fisikoek bere nortasunean arakatzera bultzatzen dute. Oroitzapenak iraganean uzteko saiakeran bilakatzen da moja, beharra dutenei laguntzeko asmoz. Hautu horrek, ordea, amaren arbuioa eta bazterketa dakarzkio, etsaiarekin elkartzea egotzita. Torturaz josiriko bidea abiatzen du orduan, tarteka 36ko gertaera hura ametsa izan zitekeela ere pentsatzeraino, aita eta ahizpa ebatsi zizkioten egun hura amesgaizto itxuran agertzen baitzaio gauero. Nolanahi ere den, etengabe gogoratzen dituen irudi horiek errealitatea ulertzeko eta iraganari hitzak jartzeko balio diote. Alabaina, hitz horien tonua aldatu egingo da eleberrian zehar, ahots berri bat sortuko, poetikoagoa, lirikoagoa dena. Azken batean, *Golgota*, zerbait bada, errealitate gordin baten kontaketa edertua da. ■

» DISKOA

Dantza egiteko gasolina

Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Anita Parker
ANITA PARKER
Mauka, 2017

Gose taldeak oso ibilbide luzea egin du, sorreran askok espero genuena baino emankorragoa. Zerotik hasi zen taldea, trikia eta elektronika batera askatzen, proposamen desberdinak sortzen eta eskaintzen, eta jantzi goxoaz bazen ere, probokatzen eta gauzak argi esaten. Ia oharkabean beraien lekua eraiki zuten eta asko izan ziren lortutako gailurrak. Izan ere, lorpen oso bitxiak izan zituzten, distantzia hartuta perspektiban ikusi beharko ditugunak. Baina, era berean, urte gogorrak izan dira, erritmo bizikoak, geldiezinak... eta azkenean heldu zen atsedena hartzeko unea, gaindituta; ilusioa eta jakinmina direlako benetako gasolina. Gasolina gabe ez dago dantza egiterik.

Tarte honetan horietako batzuek gasolina batu dute eta, errazena Gose berpiztea bazen ere, beste motore bat jarri dute martxan, oraingoan ere zerotik hasita eta probokatu nahian. Anita Parker izen enigmatikoaren atzean Iñaki Bengoa eta Jon Zubiaga Osoron arrasatearrak daude, eta beraiekin batera Skalariak taldeko sortzaile Olatz Andueza lakuntzarra eta Zango taldeko Ane Martinez bilbotarra.

Sei kanta batu dituzte estreinako disko honetan eta beste horrenbeste talde berria zuzenekoetara ikusi eta entzutera joaten direnentzat gorde dituzte. Elektronika presente dago, jakina, baina honi bestelako soinuek hartu diote aurrea; bereziki swingak. Hala, *Orain eta beti* jostaria da, jai girokoa, swingak barra-barra kutsatzen duena, bonbardinoak indartuta eta gogora dakar, halabeharrez, Goseren tankera parrandero eta zirkoeroena. *Entzun gabe* aldiz, intimoago hasten da, *Wicked games*-en tenorean, eta elektronikak pisua hartzen duen heinean dantzaleku erdira eramaten zaitu. *Michelle* hit!a da, elektroswing hutsa, gitarra aberatsak lagundu eta soulerantz ere amiltzen dena. *Amaia* barnerakoia da, Amaia Apaolaza lagunari eskainitako pop elektroniko pieza sarkorra. *Izar gorria*-k ere swinga dauka oinarri, oso jostaria da, baina gitarren pisuarekin ukitu amerikarra ere hartzen du nabarmen. Diskoa ixtearen ardura *Bitxo* mugaldeko piezak dauka, eta pausatua eta beroa, Kubara ere eramaten gaitu. Lana motza egin zait, baina ziur epe laburrerako sorpresaren bat izango dutela besopean! ■

Iñaki Bengoa, Jon Zubiaga Osoron, Olatz Andueza eta Ane Martinezek osatzen dute Anita Parker taldea.

Ateak eta sarrailak

Kattalin Miner
@MKattalin
ARGAZKIA: GARI GARAIALDE / XDZ

Finalaurrekoak, ondo ateraz gero, kategoriakoak izaten dira. Igandeko Durangokoa gutxien-gutxienean, gozatzekoa izan zen. Puntuaketekin, beti bezala, polemika Landakoko ate aurrean, tarte handia lehenengotik bigarrenera, baxuegi beste batzuk... Eta oraingo honetan, zigarro arteko kritikagintzan, puntu-erantzunei ez ezik, hainbat gairi egurra indar bereziz. Eta egia esan, meritua badute gure bapatekari hauek, auto-ilara bati edo barrita energetiko batzuen paperei seina bertso ateratzeko. Bejondeizuela!

Barkatuko didazue ageriko zerbait esaten badut, baina Aitor Mendiluzek hizketan baino errazago egiten du bertsotan, edo hori gogoratu genuen behintzat lehenengo bertsotik. Esango nuke, zaleago izan edo ez, utzitako bertsoak -bertso, kapazidade hori ikustea espektakulua dela bere horretan eta punto. Eta *nekea eta postua dira gutxienekoa* esan bazigun ere ofiziotan, ondo merezitakoa izan zuen atzokoa.

Segidan Miren Amuriza, otsokumeak ondo defendatuta, hortzak bistan, lehenengotik puntu tarte dezentekoa aterata ere, saioan zentratuta, serio, baina hala esan zigun-eta berak seiko motzean: *hobe orain estu hartzea, gero damutzea baino*, eta arrazoi. Eta kartzelakoan esandakoak interesatuki erreskatatzen baditugu, zera esango genioke bere hitzekin: *hara noraino heldu den, harritu gaitu zeharo* (harritu agian ez) *eta oraindik iritsi baietz, askoz ere aurrerago!* Segi!

Jon Maiak gogorarazi zigun nor den Maia, esango nuke batik bat kartzelakoan, eta BECa buruan darabilela argi utzi zigun entzule danoi; baina ofiziotan hala gomendatu bazion lagunari, geuk hari itzultzen diogu orain: *berak bakarrik gainditu behar du azken apustua!* Zorte on!

Oihana Iguaranek, oso ondo aritu arren, berak aipatu bigarren peajea ez ote zuen atzo ordaindu. *Hain nago txapel grinean, entrenatuz ekinean, eta lehiatu nahi nuke besteen neurri berdinean* bota zigun seiko motzean, eta ofizioek sarri zenbat egia uzten dituzten, atzetik etorri zen Mendiluzerena kasu: *besteak dira zure mailara jarri behar dutenak*, bada bai, esango nuke, esaterako bakarkakoan egindako ekarpen horrekin neurria hark jarri zuela. Ederra.

Iñaki Apalategi, gorabehera handirik gabe, mailan, neurrian mantendu eta hurrengo faserako azken billetea lortuta etxeratu zen.

Azkenik Miren Artetxe izan genuen, askoren harridurarako, puntuazio baxuarekin, batik bat, puntu-erantzunetan zein seiko motzean utzitako bertsoak kontuan hartuta. Hala ere, *bide egokia ez da sekula zuzena*, esan zigun seikoan, eta problemarik ez neska honek, ze, *giltzarik ez bada, sarraila aldatu* egiten baitu. Edonola, txapelketako bidea *errurik eta damurik gabe* agurtu zigun, elegante.

Eta gaur *buen rollito*, kritika gehiegirik ez (lasai, etorriko dira-eta) zeren ospakizuna amaitu zenean, ez zen ezer amaitu, honek aurrera darrai eta hiru saio faltan, hortxe *azken guda dantza* zain, beraz, neuk bezala entzun zenutenez hau zertaz doan, *azkenak atea itxi dezala*. ■

DURANGOKO FINALAURREKOA

Azaroaren 12an. Saioko sailkapena:
Aitor Mendiluze (740,5 puntu)
Miren Amuriza (678,5)
Jon Maia (675)
Oihana Iguaran (671)
Iñaki Apalategi (648)
Miren Artetxe (639)

BIGARREN ITZULIRA SAILKATUAK

Maialen Lujanbio (750 puntu)
Aitor Mendiluze (740,5)
Sustrai Colina (705,5)
Aitor Sarriegi (705)
Igor Elortza (703)
Beñat Gaztelumendi (694,5)
Agin Laburu (690)
Miren Amuriza (678,5)
Jon Maia (675)
Jon Martin (671)
Oihana Iguaran (671)
Jone Uria (669)
Julio Soto (668,5)
Unai Agirre (667,5)
Nerea Ibarzabal (663)
Etxahun Lekue (656,5)
Alaia Martin (651)
Iñaki Apalategi (648)

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Xabier Amurizak 1987an Durangon botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Gaia: "Aurten ehun eta hogei euskarazko liburu berri agertu dira Durangoko Azokara".

Gure azoka aurrera doa
Durangon _____ urte
eta halantxe jarrai daiala
gutxienez ___ urte.
Ehun ta ez dakit zenbat liburuk
aurten hartu dabe ____
ni idaztea itxita nago
hori baita oso merke
ez neban uste _____ idazle
zegonik ____ aparte. (bis)

Urterik urte Durango aldera
euskaldunak ____ datoz
liburu eta disko barriek
damoskue hainbeste poz.
Gitxi garela, ___ garela,
itaun bat daukat_____:
portzentaje horri gero jendeen
kopuruak bajatorkoz
hainbat _____publikatzeko
zenbat irakurle____? (bis)

Euskeran alde ____ ta bertso
hortxe gabiz herriz herri
harrigarria deritxot jaunak
liburu _____ horri.
Ni gogaituta nengon ta aurten
ez joat bape _____
_____ liburu ipini dabez
guztion erakargarri
ez al da hoba gitxiao idatz
eta gehiago _____? (bis)

K	G	C	R	O	H	A	I	N	B	A	T	S	J	L
I	B	S	O	U	Z	S	A	N	E	E	R	I	Z	Z
R	B	B	B	J	Z	L	I	P	P	O	Z	I	K	V
E	K	A	R	R	I	U	Z	R	H	B	E	U	G	V
T	I	A	M	V	H	O	R	A	A	U	I	Z	F	N
R	S	I	T	P	S	R	I	U	T	K	G	R	P	M
U	L	N	H	T	V	N	D	V	B	I	U	G	C	J
A	H	T	R	J	B	A	O	H	J	I	N	R	U	H
B	C	E	P	E	G	A	V	O	G	V	L	R	R	F
D	B	J	S	O	H	D	D	O	R	A	U	O	B	I
H	D	T	Z	B	J	O	E	D	P	P	N	I	N	J
A	E	P	G	U	B	T	T	D	O	R	H	M	P	E
J	L	A	J	E	R	C	Z	K	U	O	P	S	V	E
J	J	L	S	A	M	N	F	J	H	P	C	O	E	P
U	Z	J	P	K	M	A	Z	Z	B	O	T	L	S	R
N	T	J	U	G	O	O	V	R	E	S	E	J	V	Z

Sudokuak

Erraza

	3			8			6	5
6	4	9	3					
	2		9		1			3
4	1	6		3	9			
		2				4		
			4	2		1	8	6
7			5		8		2	
					3	8	5	4
3	5			4			9	

Zaila

			6	2		9		8
7			4				2	
				8			3	
	7	4						6
8		1				5		7
6						8	9	
	6			4				
	3				5			9
5		2		1	9			

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:
1. Apur. Toki honetara. 2. Mesedez. Urratsak emanez. 3. Zuzen, tente. Nahia, desira. Kanpora! 4. Azido nitrikoaren gatza. 5. Nerbio-sistemako zelula. 6. Bigarren letraren izena. Ibaietako pasabide. Zaldiak geldiarazteko. 7. Iruten duena. Infusioak prestatzeko landare. 8. Eserleku luzea eta biguna. Bat ere ez.

Goitik behera:
1. Bozkario. **Argazkiko hegaztia**.
2. Itsas arrain. Zoro, ergel.
3. Txalupa mota. Interjekzioa.
4. Azken eta hirugarren bokalak. Teilatuetako pieza. 5. Eraikin batek hartzen duen lur eremu.
6. Donari, sari. 7. Gorputz irekidura, arteka. Ukatzeko.
8. Zintzo. Agataren barietate preziatu. 9. Nihaur. Nahikoa.
10. Mago. Luzera neurri zaharra.

Ebazpenak

Gure azoka aurrera doa/Durangon **urterik** urte/eta halantxe jarrai daiala/gutxienez **mila** urte./Ehun ta ez dakit zenbat liburuk/aurten harte dabe **parte**/ni idaztea itxita nago/hori bait da oso merke/ez neban uste **hainbeste** idazle/zegonik **nitaz** aparte. //Urterik urte Durango aldera/euskaldunak **pozik** datoz/liburu eta disko barriek/ damoskue hainbeste poz./Gitxi garela, **asko** garela,/itaun bat daukat **apropos**:/portzentaje horri gero jendeen/kopuruak bajatorkoz,/ hainbat **liburu** publikatzeko/zenbat irakurle **dagoz**? //Euskeran alde **bertso** ta bertso/hortxe gabiz herriz herri/harrigarria deritxot jaunak/liburu **kopuru** horri./Ni gogaituta nengon ta aurten/ez joat bape **ekarri**/**hainbat** liburu ipini dabez/guztion erakargarri/ez al da hoba gitxiao idatz/eta gehiago **irakurri**?

Zaila

3	4	5	6	1	2	9	7	8
7	1	8	4	9	3	6	2	5
2	9	6	9	4	3	7	8	1
8	2	1	9	3	6	5	4	7
9	7	4	8	5	2	3	1	6
6	5	3	1	7	4	8	9	2
1	6	9	7	4	8	2	5	3
4	3	7	2	6	5	1	8	9
5	8	2	3	9	1	4	6	7

Erraza

1	3	7	2	8	4	9	6	5
6	4	9	3	5	7	2	1	8
8	2	5	9	6	1	7	4	3
4	1	6	8	3	9	5	7	2
5	8	2	7	1	6	4	3	9
9	7	3	4	2	5	1	8	6
7	6	4	5	9	8	3	2	1
2	9	1	6	7	3	8	5	4
3	5	8	1	4	2	6	9	7



Eskier-eskuin:
1. Papur. Hona. 2. Otoi, Oinez. 3. Zut, Opa, Ut. 4. Nitrato. 5. Neurona. 6. Be, Ibi, Iso. 7. Irule, Ezki. 8. Sofa. Ezein.

Goitik behera:
Potin, Uf. 4. Ui, Teila. 5. Orube. 6. Opari. 7. Hiato. Ez. 8. On. Onize. 9. Neu, Aski. 10. Azti, Oin.

Martin Abrisketa. Idazlea

IÑIGO AZKONA

36ko gerraren eta erbestearen zoritxarrak jolas fantastiko moduan bizi izan zituen Martintxo haur irudimentsuaren pasadizoak bildu ditu Martin Abrisketak *La lengua de los secretos* liburuan. Aita du haur hura Abrisketak, eta harengana hurbiltzeko balio izan dio haren kontakizunak liburuan jasotzeak. Izen berria hartzeko ere profitatu du.

“Aitak zoriontsu bizi izan zuen gerra, jolas moduan”

Jabi Zabala
@sarean

Nola bizi izan zuen zure aitak gerra?

Galtzaileen aldean, hamar urteko haurra zelako, erdian daudenek ez baitute nola defendatu. Ondo pasatu zuen gerran, gozatu egin zuen. Denak babeslekura eta bera ortura joaten zen, hegazkinak ikustera. Gezurrezkoa zela uste zuen, fantasiak babestuta bizi izan zuen zoriontsu.

Jarrera hura agian babes modukoa zen, anker sumatzen zuen errealitatearen aurrean.

Bai, berak bazekien zer gertatzen zen, baina oskol modukoa asmatu zuen. Anaia zaharragoa bi aldiz zauritu zuten, gurasoek ez zioten ezer kontatzen, baina gudaria zen auzoko batek gerrako kontuen berri ematen zion. Auzokoa gerran hil zuten, 20 urte zituela, baina handik gutxira haren gutun bat heldu zitzaion nire aitari, hil aurretik bidalia. Orduan auzokoak gutuna ilargitik igorri ziola pentsatu zuen aitak, jendea ez zela benetan hiltzen.

***La vita è bella* filmean bezala egin zuen?**

Askotan aipatu didate hori, baina niretzat ez dira berdinak. Filmean aitak, egiaren jakitun izanik, gezurra asmatzen du haurrarentzat. Hemen berak asmatu zuen fantasia eta hiru neba-arreba nahastu zituen. Hain inozoa edo akaso jakintsua izan zen, ezen jolas bihurtu zuen hura.

Erbestea etorri zen ondoren.

Santanderretik Frantziara eta han urte eta erdi, Alpeetako Tenay izeneko herri txiki batera iritsi ziren, bakarrik, gurasoengandik galduta. Han oso libre ibili ziren aita eta hiru neba-arrebak. Urte eta erdira itzuli ziren, beldur handiz... Haien gurasoek lau seme-alaba galduak zituzten gerran, denbora horretan ez baitzuten elkarren berririk izan... Galera handien historia da.

Itzuli zirenean noizbait esnatuko zen frankismoaren errealitatera.

Gerra osteko isiltasun izugarria aurkitu zuten. Tenayko jendeek beldur handiz utzi zieten itzultzen, Francoren eskuetan zer gertatuko zitzaien beldur ziren. Santiago zubia oinez nola zeharkatu zuen gogoan du aitak. Berak pentsatzen zuen frankistek adarrak eta buztana izango zutela. Beldurrak jota, guardia bati ipurdia ukitu zion buztanik ote

Oroimen historikoa haurren bidez

“Plentzian esperientzia ederra egin genuen institutuan. Liburua bertan aurkeztu ondoren, irakasleak etxean testigantzak bilatzeko agindu zien ikasleei. Historia pertsonal asko ekarri zituzten, birraitonenak-eta, sekulakoa izan zen. Euren familietan Martintxoren antzeko haur asko zeudela konturatu ziren, horrela deskubritu zuten gerra, etxekoen eskutik. Material horrekin zerbait egin behar genuela iritzita, proiektu bat antolatu nahi dugu, gerrako haurrak eskoletara hitzaldiak ematera eraman eta gero haurren bidez familiaren historia jasotzeko”.

MARTIN ABRISKETAK UTZIA

Martin Abrisketa aitarekin, garai batean gerra-hegazkinek hartuta zuten zeruari begira. Aitak gerran izandako bizipena baliatu du Abrisketak 'La lengua de los secretos' idazteko.

zuen ikusteko. Bilbora heldu zirenean oso giro eskasa aurkitu zuten.

Imajinatzen dituzu Martintxo batzuk Sirian edo Iraken?

Bai, eta nahi gabe bilatzen ditut handik iristen zaizkigun irudietan. Behin errefuxiatu eremu bateko irudietan haur batzuk ikusi nituen erreportariena egiten, garaztailu eta erratz batekin alegiazko kamera eta mikrofonoak asmatuta, elkarrizketak egiten ari ziren. Arriskuak eta onurak ditu fantasiak: umetan gurasoek fantasiatik babesten zaituzte, ez dezazun, hegan egin dezakezula pentsatuta, bosgarren solairutik salto egin; baina aldi berean eragin onuragarria du fantasiak, errealitatetik urruntzen zaitu.

***La lengua de los secretos*. Sekretuen hizkuntza zein da?**

Euskara. Aitaren familian euskaraz mintzo ziren, baina euren inguruan, Abusu auzoan, erdaraz mintzo ziren beste guztiak. Etxe barneetara mugatzen zen euskara, aspalditik gainbeheran eta gainera debekatuta. Sekretuak hizkuntza horretan kontatzen ziren, besteek ez ulertzeko. Beste esanahi bat ere badu, aita eta bion arteko harremanaren ingurukoa. Liburua bera izan da elkar ezagutzeko erabili dugun bidea.

Aitarengana itzultzea izan da zuretzat?

Askori gertatu zaigu, hazten ari garen garaian nortasuna hartzeko aitarengandik aldentzea baina, denbora igarota, harengana itzuli beharra sentitzea. Zorionez garaiz itzuli nintzen, bere bizitza kontatzearen bidez, eta oso elkartze polita izan da. Momentu batean zahartzen ari zela ikusi nuen, bihotza makal eta oroimen arazoekin, eta gure arteko harremana osatu gabe joango ote zen beldur nintzen. Berak bazekien historia ederra zuela kontatzeko, baina galduko zuela, ezin genuen denborarik galdu. Hiru urteko bidea izan da, hari bidalitako kartekin osatu nuen nobela, eta berak egunero idazten zituen bere oroitzapenak, badaezpada, biharamunean hiltzearen beldur. Biok elkarrekin aritu gara, liburua atera ondoren ere, aurkezpenetan eta. Orain, hori guztia igarota, bera erlaxatu da eta honezkero oroimena galtzen hasi da.

Izena ere aldatu dizu nobelak, lotsa kontu batengatik.

Bai, liburuarekin hasi ginela aita eta izeba ez ziren eroso sentitzen beren ahoetan jartzen ari nintzen gauza batzuekin. Izenak aldatzea oso ondo etorri zitzaigun, lasaiago ibili ziren handik aurrera. Abrisketa gure inguruko toki izena eta familiako abizena ere badelako, eta Martintxo, Barojaren Zalakainengatik. Hasieran ez nuen pentsatu liburuak ni ere izenez aldatuko ninduela baina, Martintxoren semea naizenez, izen berria hartu dut. Egia esan, lotsatia naiz eta ezizenak babestu nau.

Idazten zenuen lehendik ere.

Kazetaritzan aritu nintzen, baita telebista kamera eta gidoilari ere. Asko lagundu didate langintza horiek, idazten eta planoak irudikatzen. Azkenean nire kontaera aurkitu dut nobelarekin. Hazten ere lagundu dit, Peter Pan xamarra izan nintzen urte luzez, eta nobelak familiarekin bat egiten lagundu dit. ■

Iheslarien zirkulazionea errazteko kanpaina abiarazi du Bilboko Portuak: armak eraman ditzatela

Jasotako kritika bidegabeez nekaturik, denak pozik egoteko moduko ideia bikaina izan du Asier Atutxa Bilboko Portuko Agintaritzako agintariak: ihes egin nahi duten errefuxiatuei ontzietan sartzen uztea baldin eta Saudi Arabiara arma bana eramatera konprometitzen badira. "Tiro bakarraz bi txori hilda", azaldu du Atutxak, aitak idatzi dizkion ohartxoak irakurriz: "Garraioan aurreztuko dugu eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko *podemita* zarpail horiek bakean utziko gaituzte behingoz".

Garai berriekin bat datorren logoa aurkeztu du Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak.

"Tira, horrela bada…", baloratu dute errefuxiatuen aldeko GKEek, konformatuz edo. "Zalantza genuen hasieran, baina gero esan ziguten ontzietara igotzen direnei ogitarteko bana emango dietela, eta aizu, hori ez da Atutxaren gauerdiko eztula…", esplikatu dio Beranduegiri Sarai Nuñez-Splittergeist munduko injustizien aurkako militante globalak.

SAREAN ARRANTZATUA

Agur eta ohore txikito

Pantumakahamehameha

Ezker abertzaleari esku bat anputatu diote, EAJri luzatuta denbora gehiegiz eduki ondoren

"Ez zaigu beste irtenbiderik geratu", azaldu dute Donostia Ospitaleko medikuek, ezker abertzaleari egin behar izan dioten urgentziazko anputazioa esplikatzeko eman duten prentsaurrekoan. "Urteak zeramatzan eskua luzatuta, jai eta aste, eta hemen daukagun eguraldiarekin asko okertu da atzamarren egoera". Iturri medikuek baieztatu dutenez, ezker abertzalea ez zen gai azkenaldian EAJri luzatu dion eskua ukabilean ixteko eta hori ikusita jo du ospitalera. Ordurako ez zegoen zereginik ordea. Ezker abertzaleko iturriek garrantzia kendu nahi izan diote galerari, galdutako eskua KASen logotipotik asko erabili ez dutelako.

KAS alternatibaren egokitzapena, 40. urteurrenarekin bat.

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.

13 €
Bidalketa gastuak 2 €

Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik, kazetaritzan ere sustatu independentzia!

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | www.bizibaratzea.eus/azoka | ✆ 943 371 545 | azoka@argia.eus

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com